



# ttipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus

2015eko urriaren 1a | XXXV. urtea | 647. zenbakia



**Maite ITURRE**  
Cederna-Garalur  
elkarteko  
lehendakaria → 9

## Moda

Gehigarri berezia → 11-17

## ETXALAR → 21

Pello Apezetxeak 50 urte  
egin ditu herriko apaiz

## ZUBIETA → 28

Euskararen Eguna prest  
dute urriaren 10erako

## LEITZA → 34

9. Aurrera Eguna ospatuko  
dute larunbatean

## BAZTAN → 35-37

Herriko bestak datoz  
Aniz eta Gartzainera

## OINEZ 2015 | Elizondon, urriaren 18an



**Pausoak  
sendoagoak  
dira, batera  
emanez gero**

ERREPORTAJEA → 3-5



**Koteto EZKURRA**

## DONEZTEBE → 26

**'Ezkurra  
pilotalekua'**  
Izena paratu diote  
Doneztebeko  
frontoi estaliari.

## GIZARTEA → 24

Bortzirietako  
**Euskara  
Mankomunitate-**  
aren 25. urteurre-  
naren harira,  
hainbat ekimen  
antolatu dituzte  
urriaren 12tik 16ra.

## KIROLA → 44

10 probetatik 5  
irabazita,  
**Nafarroa garaile**  
Elizondon jokatu  
zen herrialdeen  
arteko herri kirol  
txapelketan.

## ZOKKETAK → 52



Txartela egiteko  
deitu **948 63 54 58ra**



**Iaz baino 88 ikasle gehiago Baztan, Bertizarana  
Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka eta Xaretan → 10**

BIGARREN HEZKUNTZA BARNE  
**5.425** IKASLE  
2015-2016 ikasturtean





berako agenda  
Eus




Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 012 telefonoan edo [www.berakoagenda.eus](http://www.berakoagenda.eus)

# berako agenda

**3** larunbata  
ARTZAI AMERIKANOEN BESTA EGUNA  
10:00 • Harrera eta hamaiketako | 12:00 • Meza  
Ondoren • Omenaldia Dolores Lazkanori  
14:00 • Bazkaria (Francisco alaiturik) | 18:00 • Zozketa | 19:00 • Agurra

irailaren **25**etik  
**11** urriaren **11**ra  
ARTZAIEN ARGAZKI ERAKUSKETA  
Irekia: Ortziralea, larunbata eta igandea  
Orduetgia: ortzirala (17:00-19:00); asteburua (11:00-13:00)  
Lekua: Berako Kultur etxea

**17** larunbata  
KONTZERTUA:  
Requiem de Duruflé  
20:00 • Sanesteban Eliza

**24** larunbata  
LIZUNIAGAKO IGOERA 14 urtetik gorakoentzat  
17:00 • Gure Txokoan • 4,9 km lzen-ematea: 5€ | [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com)  
Antolatzailea: Gure Txokoa

**24** larunbata  
BERA KANTARI  
20:00  
Illekuetatik abiatuta

**25** igandea  
LURRAREN EGUNA  
Eskulangileen azoka, barazkien erakusketa, gasna eta sagardo lehiaketa, kalejira, argazki erakusketa, bertsolariak, dantzariak, berbena...

**30** ortziralea  
HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA  
KONTALARIA: Estitxu Mentaberri  
3-6 urte bitartekoentzat • 17:30 • Herri Liurutegian

**31** larunbata  
ABESBATZA KONTZERTUA:  
Stockholms Musikgymnasium Chamber Choir (Suedia)  
20:00 • Kultur Etxean  
Sarrera: 6€

**20** asteartea  
SOLASALDIA: "Nola ordaindu gutiago argindarra"  
(Maria Arretxe eta Miren Olaetxea)  
18:30 • Beralandetan  
Antolatzailea: Arkupeak

**12-16** astelehena ortzirala  
ERAKUSKETA: ArnaSguneei (UEMA) eta Bortziritako Euskara Mankomunitatearen 25 urteei buruzkoa • 18:00-20:00


**16** ortziralea  
MAHAI INGURUA • 18:30ean  
Dokumentala mankomunitatearen sorreraz  
Mahai-ingurua: Mentxu Peña, Eneritz Rekarte, Axun Maia, Eduardo Conde, Patri Arburua • Moderatzailea: Oskar Goñi

**25** URTE  
BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEAK  
Kultur Etxeko erakusgelan



berako kultur etxea  
BERAKO UDALA

## DONEZTEBE ELIZAGIBELA KALEAN LAISTER ERAIKITZEKO



**PISUAK**  
TRASTELEKUAREKIN  
SALGAI

**106.000€tik**  
hasita

GARAJEAK

LOKAL KOMERTZIALAK

**948 450 133**

[www.pisossantesteban.com](http://www.pisossantesteban.com)





UTZITAKO ARGAZKIA

Baztan Ikastolako ikasleak Nafarroa Oinezeko lema eskuetan.

GIZARTEA → NAFARROA OINEZ

# Hamabortzak batera oinez

Urriaren 18an ospatuko da Baztan Ikastolak antolatutako Nafarroa Oinez besta

*'Hamabortz... ama bat'* leloak biltzen ditu Baztan Ikastolaren izena eta izana. Baita, Nafarroan eskuararen alde ari diren hamabortz ikastolen eguneroko lana ere. Urriko hirugarren igandean, Nafarroa Oinez bestarekin borobil-

duko dute Baztanen urte osoan landu duten proiektua. Eta jakinik pausoak sendoagoak izaten direla batera emanez gero, bertara hurbiltzeko gonbidapena luzatu dute: «lanean edota bestan, ongi pasatzeko aukerarik ez da faltako»

## Eneritz IRAOLA

Egutegiari adi begira daude baztandarrak, gutti falta baita urriaren 18a heltzeko. Baztanen iraganen den Nafarroako Ikastolen aldeko besta ospatzeko.

Oina dute ikur, «oinez, urratsez urrats egin

dugulako eta egiten ari garelako gure hizkuntzaren bidea» diote antolatzaileek.

1982an, ospatu zuten lehenengoz Baztanen Nafarroa Oinez besta eta orduan, bi oinek osatu zuten euren ikurra. Oraingoan bakarrak,

«eskuarak beti behar duelako bulkaldia eta ezinbertzekoa delako urratsak ematen jarraitzea».

Hamabortz Ikastolek osatutako oina marraztu dute, hamabortz herrik koloreztatutakoa, hamabortzak, eskuararen al-

tzoan biltzen direnak, *Hamabortz... ama bat* lelopean.

## URTE OSOKO LANA

Iaz urriaren 19an jasozuten Zangozako Ikastolaren eskutik lekukoa eta aunitzerako eman die urteak: Oinez gailurra, Oinez basoa, Artea Oinez, Txikiak handi, Nafarroa Oinez eta lasterka... Hasmentatik «ikaragarriko gogoz» hartu zuten arduraz «dinamismoa da, Baztan Ikastola osatzen duen hezkuntza komunitatearen ezaugarrietako bat. Horren erakusgarri da, bialarako bizitza soziokulturalean Ikastolak egin duen eta egiten ari den lana» diote antolatzaileek. Oztopoak oztopo «Baztan Ikastolan eskuara eta euskal kultura bizi daitezenean segitza» izan dute eta eguneroko helburu.

## HELBURU ZEHATZAK

«Azpiegiturei dagozkie beharrak handitzen ari dira eta iturri zaharretik ur berriak isurtzea ez da erraza. Horregatik, nahitaezkoa da babes ekonomikoa lortzea. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako eraikinak hobetzeko premia dugu eta»



UTZITAKO IRUDIA  
1982an bi oinek osatu zuten logoa, aurten bakarrak.





**HAMABORTZ, AMA BAT**  
NAFARROA OINEZ ERREKIBITZAN  
18 URTEAK

**OINEZ KANTA**

**IKURRAK**

- ERRONKA
- DENDA
- INFORMAZIOA
- SAGARDOTEGIA
- DIRJU-TRUKEA
- KAFEA
- OGITARTEKOAK
- PAELLADA
- TXOSNA
- TONBOLA
- BASOAK BASORAT
- PUZGARRIAK
- TALOAK
- ZOZKIAK + GOZOKIAK
- LAKTANTZIA GELA
- KOMUNAK

**4. GUNEA BASABURUA**

10:00 ERRONKA  
11:00 Kaskezur  
12:00 Hesian  
**13:30 URKO "Guk euskaraz"**  
13:30 Oihan Vega  
15:30 Zea Mays  
17:30 Trikidantz

**1. GUNEA ERBEREA**

10:15 Xendarineko ahizpak  
10:30 Asteazkeneoak  
11:00 ERRONKA  
11:30 Herri kirolak  
12:45 Tximeleta  
**13:30 URKO "Guk euskaraz"**  
14:30 Oliver Magoa  
15:30 Muixeranga  
16:00 Kalakan  
17:15 Mutildantzak (Jo ala jo)  
17:45 Jautziak (Lau Urrats)  
18:15 Larraindantza (Baztango gaitariak)

**EGUNEAN ZEHAR**  
LABORAL KUTXA eta DDNren eskutik haur jarduerak: puzgarriak, tailerrak...

**2. GUNEA ELIZONDO**

10:30 Bertso saioa  
11:00 Maialen  
12:30 Emon  
13:00 ERRONKA  
**13:30 URKO "Guk euskaraz"**  
14:00 ERRONKA Finala  
14:45 Erronka: sari banaketa  
15:15 Los Zopilotes Txirriak  
16:30 Xutik  
17:45 Tirri&Tery

**EGUNEAN ZEHAR**  
KAIKUren eskutik jumpinga eta txikiak.  
ROCOPOLISen eskutik rokodromoa

**3. GUNEA BAZTANGOIZA**

10:30 Erreka Dantza Taldea  
11:30 Alabaola erakustaldia  
12:00 ERRONKA  
13:30 Muixeranga tailerra  
**13:30 URKO "Guk euskaraz"**  
13:30 Irri herri anitz  
14:30 Jinkana  
15:30 Alabaola erakustaldia  
16:30 Ane eta protekin parrandian

**EGUNEAN ZEHAR**  
EROSKIren eskutik: Inten Lagunak (Kutxa)  
Zaldingia (Ordoki), Itxola (BKZ)...

**TALDE IBILTARIAK**

**Txarngak:** Eluba baranga, Galtzagorri baranga, Galtzara baranga, Kuxkutu baranga, Los Incansables baranga, Oñatiko trikibaranga // **Txistulariak:** Mugarik Gabeko Tiuntuneroak, Jo ala jo // **Gaitariak:** Baztango gaitariak, Baigorriko gaitariak, Ezpeltu gaitariak

**Trikitilariak:** Irats trikitixa eskola, Mendaur trikipandero eskola, Aralar musika eskolako trikitilariak, Xapiru trikitixa eskola, Durangoko trikitixa eskola // **Fanfarreak:** Fanfarre Mi Fa // **Dantzariak:** Arroia dantza taldea, Goizetako zahagi dantza taldea, Azpeitiko Ikastola - Ikasberri

kooperatibiko Gurasoen Dantza Taldea // **Batukadak:** Niarawa batukada // **Joldunak:** Iturren joldunak, Zubietako joldunak, Aurtzko joldunak // **Kale animazioa:** Adardunak, "Kantuz" taldea

**OINEZ KANTA**

# HAMA BORTZ, AMA BAT

Hamabortz aldiriz itasoratuak, ditugu amaren esne tantak, hamabortz aldiriz lehorreratuak belarrietan sehaska kantak. Ham bortz aldiriz entzundako hitzak gaur mingainean dantzan dakartzat, Kendurak batuz, batugaik kenduz, kenduz, batuz... HAMA BORTZ AMA BAT.

**NAFARROA OINEZ BAZTANDIK MUNDURAT HAMA BORTZ AMA BAT ESKUARAZ MUNDU BAT**

Literaturaren zenbakietan zenbat ohar, mezu eta datu. Hizkuntza za(h)ir honen bizirautea Baztanen nahi bade ziurtatu alferrik dira: erro, errokezun, errozaila eta erro karratu Jasotakoa zatitu, banatu... (e)ta erabilera biderkatu.

**NAFARROA OINEZ BAZTANDIK MUNDURAT HAMA BORTZ AMA BAT ESKUARAZ MUNDU BAT**

**NAFARROA OINEZ HELDU DA GURERA GUREA DENONA BADA, ZURE DA**

**HAMA BORTZ AMA BAT BAZTANDIK MUNDURAT**

Bidegurutzean dabilzan arrin, erraza zailduz, zaila errazluz jarrai dezagun gure hizkuntzaren bidea pausoz pauso orraztuz gure bi oin biluziak, txikiak... milioika kolorez lokaztuz atzoko urrats aztarnetan sartuz eta biharko urratsak marraztuz.

**NAFARROA OINEZ BAZTANDIK MUNDURAT HAMA BORTZ AMA BAT ESKUARAZ MUNDU BAT**

**LAU GUNE BESTARAKO PREST**

Lekaroz, Elizondo eta Elbete lotuaz, 5.800 metroko ibilbidea osatu dute Nafarroa Oinezeko antolatzaileek. Ibilbidearen baitan, lau gune izanen dira: Basaburua, Erberera, Elizondo eta Baztangoiza. Haue-tan, goizeko 10ak alde-ra hasi eta arratsaldeko 6ak ingurura arte musika, kirola, jolasak... mota guzietako ekitaldiak izanen dituzte bisitariak esperoan.

**TALDE IBILTARIAK**

Ibilbidea giro-tuko duten taldeak ere ez dira faltako. Eskualdeko eta kanpotik etorritako txarngak, txistulariak, gaitariak, trikitilariak, fanfarreak, dantzariak, joldunak, batukadak, kale animazioa... ibiliko dira ibilbidean barna.

**MUSIKARIK ERE EZ DA FALTAKO**

Zea Mays, Hesian, Kalakan, Tximeleta... talde ezagunak oholtza gainean ikusteko aukera izanen dute bertar-tzen direnek. Baita Baztango hainbat musikariren musikaz gozatzekoa ere: Trikidantz, Xutik, Tirri&Tery...

**HAURRENDAKO HAMAIIKA PROPOSAMEN**

Irrien lagunak, Jumping eta ludoteka, roko-dromoa, puzgarriak... lau guneetan antolatuko dituzte etxeko ttikienek primeran pasatzeko moduko ekintzak.

**KIROLERAKO TARTEA ERE BAI**

Urte osoan bezalaxe, kirolak ere protagonismoa izanen du egun handian. Herri kirol saioa antolatu dute Erberera gu-

nean eta horretaz gain, Ikastetxeen arteko Erronkak jokatu eta final handia 2. gunean izanen da 14:00etan.

**ABESBATZA ERRALDOIA OSATU NAHI DA**

Nafarroa Oinez markak hautsi eta euskarari kantatuko dion abesbatzarik handiena osatu nahi dute. *Guk euskaraz zuk zergatik ez* abesti ezaguna abestea da asmoa, euskararen oihartzuna mundurat balduz, eta gure hizkuntzari hauspoa eta arnasa emanez. Hitzordua 13:30ean izanen da Nafarroa Oinezeko gune guzietan. Gabriel Arestiren hitz ezagunei doinua paratu zien Urko abeslaria bera izanen da zuzendari. Eta inor kantatu gabe geratu ez dadin, letra esku-programan sartu dute.



## HELBURU ZEHATZAK

Nafarroa Oinez bes-tak euskarari bultzada emateko helburua du. Euskarari norberaren bizitzan eta gizartean toki garrantzitsua ematea du xede. Baina horretaz gain, Baztan Ikastolarendako baliabide ekonomikokoak ere erdietsi nahi ditu.

Ikastola aunitzetan bezala, «beharrak handiak» direla diote Baztan Ikastolan, baina egoera ekonomikoa zein den jakitun, «helburu zehatzei eman die lehentasuna».

**Haur Hezkuntzako eraikinean** «gelak ttipi gelditu dira, batez ere psikomotrizitate gela. Eguraldia txarra delarik atsedendialdiak gela horretan egitera behartuak daudela eta «hemen maiz egiten du euria». Horregatik, sabaia konpondu nahiko lukete «teilatua goratu nahi diogu, altuera nahikoa eman eta eguraldi txarra egiten duelarik haurrak estalpean jostatze-ko». Horretaz gain, zorua eta eraikinaren isolamenduak ere konpondu nahi dituzte «ingurugiroarekin eta jasagarritasunarekin konprometituak gaude eta isolamendu apropos bategen energia kontsumoa gutitzea ahalbidetuko luke, dudarik gabe. Horretaz gain, parkeko zoruan ere moldaketak egin nahi dituzte «lohi-z betetzen baita euria egiten duelarik».

**Lehen Hezkuntzako eraikinean** patioa estaltzea eta isolamendua hobetzea da asmoa «euria ari duelarik jostatze-ko estalperik ez dute haurrek eta isolamendu gabezia nabarmena da eraikin osoan, hartara, Nafarroa Oinez jasotako dirua patioan estalpea jartzeko eta leihoak aldatzeko erabili-ko dugu» azaldu dute.

## 45 URTEKO HISTORIA

Baztan Ikastola, bailara osoari euskarazko hezkuntza eskaintzen dion herri-egitasmoa da eta irailean 45 urte bete ditu. 1970ean 27 ikasle eta Lekarozko Mari Karmen Goñi irakaslea izan ziren Ikastolaren historiako lehenbiziko lerroa idatzi zutenak. «**Ikasketak akitu ondoren, nonbait, Gipuzkoan irakasle eskualdunen eskasia zegoen eta ez dakit nola neuregana etorri ziren, Lezoko ikastolan lan egiteko. Han nengoela Elizondon ikastola bat ireki nahian, nire berri izan zuten eta Baztanen andereño izatea eskaini zidaten**» azaldu digu Mari Karmenek. Eskaintzaren aurrean baitza eman zuen «**ez dut gogoan aunitz pentsatu ote nuen. Nik nire gurasoengandik eskuara bizi nuen nahiz ikasketak guziak erdara hutsean eginak izan. Elizondo Baztango herri erdaldunena zen eta ilusioa egin zidan guraso batzuk beren seme-alaben laguntzaila izateko hautatua izanak eta euskaldun bezala bizi eta hezi nahi izateak**». Hasierako urteek gazitik eta gozotik izan zuten «**oraindik ikastolen mugimendua hasmentako fasean zegoen. Baliabide eskasak: mobiliario gutti, multikopistaz guk egokitutako testuak, Gipuzkoako ikastoletan erabiltzen zuten materiala zerba-it... baino ilusioa gainezka. Bizirik irautea nahikoa genuen**». Elizondoko zahar etxeko zatitxo bat utzi zieten klaseak emateko «**lehen Miserikordia deitutakoa eta hor, kantu, txotxongilo, jokoez... baliatuz eskuaraz bizitzen eta ikasten hasi ginen**». Gero ikasle kopurua handitu zen eta horrek lokalen beharra ekarri zuen «**eta betikoa, diru falta nabarmena zen**». Horren aitzinean, aipatzekoa da «**gurasoen inplikazio izugarria. Dena auzolanen bidez moldatzen zen**» gaineratu du. Hasierako urte haietan, bitxikeriak ere aunitz izan ziren, «**zahar etxean zegoen emakume batek gu falta ginelarik ikastolan sartu eta gela garbitzen zigun. Saguak gure ikaslagun ziren eta buztanetik zintzilik ere noizbait ikusi ditut. Polizia sekretuen bisita maiz izaten genuen. Eta batzuetan jendea ere hurbildu izan zitzaigun ea zer erakusten genuen galdetzer...**». Gaur egun, «**ekonomia aldetik egoera lasaigoa da. Baliabide eta irakasleen prestakuntza, metodologia eta teknologia berriei egokitu eta irekiagoa da. Gurasoen inplikazioa orokorrean ez da hasieran bezain ezinbertzekoa, baina hurbiltasunak eta auzolanaren presentziak hor segitzen du. Gurasoak ikastolaren partaide bizi eta sendoak dira**». Euskararen egoerari dagokionez ere, «**uste dut argia eta nabaria dela euskarak 40 urte hauetan hobera egin duen aldaketa. Elizondo erdaldun batetik ia euskalduna izatera pasatu da. Baztango hamabortz herrietan euskaraz ikasten da. Gure hizkuntza bere tokia hartzen**



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztan Ikastolako lehenbiziko ikasleak, Mari Karmen Goñirekin.

**ari da. Erakundeetan, udaletxean, eskuarak lehen baino presentzia gehiago du baina oraindik pauso gehiago ematea beharrezkoa da.**

Urriaren 18an, omenaldi berezia egingen diete Ikastolako betiko andereño eta maixuei: Mari Karmen Goñi, Sokorro Iñarrea, Marilu Apeztegia, Mari Paz Goñi, Kepa Dendarrieta, Juanjo Atxa, Maite Iturralde, Mari Joxe Iturralde eta Jasone Altxuri. Albistea jakin zuenean «**harridura eta era berean poza, emozioa eta eskerrona**» sentitu zituen Mari Karmenek «**poza, emozioa eta eskerrona proposamen hau egin zutenek irakasleok ikastolaren bilakaeraren parte ikusten gintuztelako. Ikastolako momentu ilun eta gozoetan, gurasoekin batera partaide biziak izan garelako. Euskara maitatu, erabili eta hedatzen dugulako**». Eta harridura «**omendua izateko meritua egin behar direlako. Guk ikastolari egin diogun ekarpena barne barne-tik, maitasunez, oparirik esperatu gabe egin diogu. Merezimendua gurasoek dute, haien ilusioa, gogoak, zailtasunetan indarra... handiak izan eta izaten dira**».

40 urtez izan zen bertako irakasle eta erretiroa hartu badu ere, «**oraindik ikastolaren hutsunea barnean**» sentitzen duela dio «**nahiz fisikoki ez egon, lotura hor dago eta ezin dut alde egin**». Gainera heldu den urtetik berriz ere lotura gehiago izanen du «**gure biloba ikastolan hasiko baita**». Etorkizunaz galdetuta, «**horrelako guraso eta irakasleekin, ikastola esku onetan dago eta etorkizun baikorra, ilusioz bete eta aitzinet egiteko indar eta kemenarekin. Oinezko leloak dioena erabili eta erakutsiz: HAMABORTZ... AMA BAT!**».





**Nire txanda**  
Joseba URROTZ

## Gabatxuk

Hitzaren jatorria ez omen dago erabat argi baina beti ere frantzesei buruz mespretxu antzean aritzeko erabiltzen da. Ematen du jende aunitzek ezinikusia duela frantzesenganako, edo behinpein ez ditutela hagitz gogoko. Nik diot bekaizeria ote den, han hainbat gauza on ikusi baititut. Hango kanpinarik arruntena, hemengo onenaren pareko da. Gauzak osorik eta ongi zainduak, jendeak errespetatzen dituelako. Hiri kokorren inguruan, aparkaleku ederrak daude, bertan kotxea utzi, debalde edo prezio merkean, eta tranbian hirian ibiltzeko aukera. Errepide nagusietan, leku prestatuak ikusi ditut jendea elkartu, kotxea utzi eta elkarrekin joateko. Autopista garestia izanen da (baita hemen ere) baina ikusgarriak iduritu zaizkit 15-20 kilometrotik dauden zerbitzuguneak. dekulako aparkalekuekin, auto, karabana eta kamioientzat banatuak eta komunekin. Hau noski, ongi zaindua, garbia, ur bero eta musikarekin ere! Han gauzak herritarren zerbitzurako, hauek arduraz jokatu dutelakoan eta zentzuz eginak daudela uste dut. Hemen berriz, mesfidantzan oinarriturik, itxurari garrantzi gehiago emanez eta etekin ekonomikoa bilatuz lehenik.

**Ezpala**  
Aitor AROTZENA

## Emakumeen mundu martxa

Martxoaren 8an Kurdistanetik atera eta aste honetan ailegatu da gurera Emakumeen Mundu Martxa, emakumeen askatasuna eta berdintasuna aldarri. Berdintasun itxurako solasaren giblean, ezberdintasuna baita oraindik nagusi. Woody Allen-ek film batean erraten zuen: *Etxeko lanak banatuak ditugu; zure amak erabaki garrantzitsuak hartzen ditu eta nik telebistaren mandoa.*

## Nabarmentzekoak



**Maite ITURRE**  
Cedernako presidente berria

EHBilduko Baztango udal zinegotzia aukeratu zuten irailaren 17an Lekunberrin Cederna-Garalur garapen agentziako presidente izateko datozen lau urteetan.



**Koteto EZKURRA**  
Pilotalekua bere izenarekin

Ongi merezitako omenaldia jaso zuen Donezteben, erremontean profesionaletan 25 urte egin eta gero. Gainera, herriko udal pilotalekua ere bere abizenarekin *batiaitu* dute.



**Pello APEZTEXA**  
50 urtez apez Etxalarren

Sortzez goizuetarra bada ere, aski *etxalartua* dagoela erran daiteke. 1965ean hasi zen Etxalarren apez eta 50 urte horiek gogoratzeko eta ospatzeko omenaldia egin zion parrokiak.

Atzera begira → 2005-X-06 / TTIPI-TTAPA 407 zk.



## Joxepa Telletxea, eskualdeko azken serorarekin solasean

Baztan-Bidasoaldean duela hamar urte gelditzen zen serora bakarrari bixita egin zion ttipi-ttapa, Joxepa Telletxea lekaroztarrari. Elizaren mantenuarekin eta garbiketarekin lotutako lanbideak, jendeak uste duena baino lan gehiago ematen omen du: «Egia da orain ez dela hainbertze lan, baina izaten dira epokak. Aste Sainduan adibidez, egunero eliza atenditu behar duzu, beti badira predikuak, aldarea beztitu, sua egin... Ospakizun berexirik ez denean berriz, eliza garbitzea izaten da nere ardura». Halere, berak uztean lanbidea ere galduko zela aipatu zigun Joxepak, «gaur egun inork ez du lan hau hartu nahi».

**ttipi-ttapa**

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA  
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usosa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaiak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerenidiain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larraalde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apeztexea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

### 2015eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	18€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	73€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Bortzirietako Euskara  
Mankomunitateak  
diruz lagundua

**MEKNA**  
MEZINASOIA KULTURA NAFARROA





## Kolaborazioak

### Aylan, ikonoa

Joxe ARREGI (Itzulpena: Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ)

S hangaiko Burtsaren ziurgabetasunak edota lbexen gorabeherak urduri jarraitzen genituen bitartean, etorkinen kuotei buruz eztabaidatzen genuen modu zikoitzean. Kuota minimoak, gure behar ekonomikoak asetzeko edo gure kontzientzia garbitzeko, edo bestela, azaleko eran nabarmentzen genuen gure azken Smartphoneren giga ahalmena. Siriako hiru urteko mutiko honen irudiak, barkarik, babesgabea, Turkiako hondartza batean hilda, bihotza uzurtu digu. Ezin diogu begiratu, baina nola utzi begiratzeari? Bere begi txiki itzaliek begiratzen digute eta islatzen gaituzte. Aylan Kurdi du izena. Ikus ezazu argazki hori: Aylan zintzilik dago turkiar polizia baten besoetatik; Ahozpeztatza hondartzan, olatu txiki batek leunki laztantzen duen bitartean, bere bidaia tragikoaren azken malkoak bere aurpegian xukatu nahiko balitu bezala. Itsasoak honako hauxe esanen baligu bezala: “Hortxe duzue mutikoa, uretik jaioa, uretan itoa. Itzuli egiten dizuet zeuen kontzientzia esna dadin. Nola bihurtu dituzue ur hauek haur-malko itsaso, ama eta gizon etsituenak?”.

Aylan, itsasertzean hondoa jota, bizitzan, giza historian, hondoa jota dagoen gure gizateriaren irudi beldurgarri bat da. Gure zibillizazioaren naufragioaren lekukoa da, atzo eta gaurko inperioekin, frontieretan babestuak, denak artifizialak, beren Nazio Batuekin boteretsuenen beto eskubideei lotuta, beren ekonomia espekulatiboarekin, erailea, gutxi batzuen onurarako bideratua, finantza botereen mendean dagoen politikarekin. Eta beren erlijio handiekin, ondasunetan eta egia absolutuaren difusioan ainguratuak, planetaren konkista espiritualean tematuta (eta baita militarra ere, hau izugarrikeria!). Gizateria hau porrot egiten ari da. Ez badugu denon artean salbatzen, denok hondoratuko gara.

Aylan, bizi garen munduaren desadostasunaren erretratu tragikoa da, zeinaren foku dramatikoenetako bat Ekialde Ertaina baita. Baina Mendebaldea ez da errugabea. Nork elkarbanatu zuen Ekialde Ertaina Lehen Mundu Gerraren ondoren orain dela ehun urte? Nork eraman ditu porrotera, harrezkero, Irandik Egiptoraino, jaiotzen ari ziren demokrazia laiko hauskorak? Nork sustengatu zituen herrialde horien diktadurarik ankerrenak? Nor jabetu zen neurrigabeko petrolio putzuez? Nork makurrarazi ditu bere senideak eta gaizki tratatu, gure senide palestinarrak, Nazio Batuen aginduei ez ikusiarena eginez zinikoki? Nork bultzatu eta finantzatu zuen Al-Qaedaaren sorrera lehenik eta gero Estatu Islamikoarena, esku artetik ihes egin arte? Beste mundu bat, beste Europa bat behar ditugu. (...)

Bere heriotzako isiltasun profetikoaren hondo-hondotik, Aylanek honela egiten digu oihu: “Europa, ez duzu gezurrik esan behar. Europa, ez itxi zerorren ateak. Eliza katolikoa, utzi zerorren doktrina eta moral obsesioak, eta itzuli Samariar Onaren parabolara”.

Aylan hitzak zera esan nahi du: turkieraz “argi-koroa”, eta “haritza” hebreeraz. Ez dakit zein den izenaren jatorri zehatza; ezta axolarik ere. Aylan argi ikono bat da, bizi hazi bat haritza baino ahaltsuagoa. Eta ernamuindu, berpiztu eta distira egiten du etorkinak hartzen dituzten gizarte mugimenduetan, itxaropenaren lekuko bedeinkatuak.

### “Egiak” eztabaidan

Esteban IRUSTA MALLEA


I rakurle batzuei *Dogma* hitza ezezaguna egingo zaie, behar bada. Bere esanahia nagusia, bai Elizan, bai Zientzian, hauxe da: Eztabaida(tu) ezin den *Egia*. Sinestunen munduan, Aita Santuak, tarteka, solemneki, azaltzen du eliztarrek sinistu behar duten *Egia*. Zientzia munduan, zientzialariak ikerketen bidez, ondorio batzuetara iristen dira, eta jende aurrean azaltzen dute lortutako *Egia*. Aurkikuntza zientifiko horiek *Egi* izaten dira denbora batean, ikerketa berriek ezeztatu arte. Denoi aski ezaguna egiten zaigu arrain urdinaren kasua. Kolesterol altua zutenentzat txarra omen zen. Urte asko pasa ondoren, berriz, bera omen da onena. Denboran oso atzera eginez, sonatua egin zen Nikolas Koperniko apezak eta Galileo Galileik Eliz Agintariekin izan zuten eztabaida Unibertsoari buruz. Garai haietan, bi *egi* zeuden: Bata, Eliz Agintariek 1500 urtez defenditzen zuten Geozentrismoa; Lurra zela Unibertsoaren Erdi Gunea. Eta bestea, Kopernikok lehenengo, eta Galileok geroago, defenditzen zuten Heliozentrismoa; hau da: Eguzkia zela Unibertsoaren erdi gunea (...). Gaur egun ere denok ezagutzen ditugu pertsonak egiaren jabe sentitzen direnak; beraien iritziak beti nagusitu behar izaten direnak. Euskal Herrian ezagutzen ditugu kasu penagarri batzuk. Hor daukagu Iruña Veleia-ren eztabaida. Gasteiztik 10 bat km.ra aurkitzen zen hiri honen aztarnak, sekulako interesa sortu zuten Euskal Herriko zientzia munduko jendeen artean. Erromatarren denborakoak dira. Eta bertan agertzen diren euskarazko hitzak eta esaldiak egiaztatuz gero, euskara idatziaren zaharrenak izango lirateke. Eliseo Gilek eta Idoia Filloyk zuzendutako ikerketa hauek ezerezean uzten dituzte orain arteko *Egiak*; eta Joakin Gorrotxategik eta Joseba Lakarra katedradunek, besteak beste, ez dituzte onartzen. Baina beste zientzialari asko ez daude konforme hartutako erabakiekin, eta ikerketa lanak kanpoko arkeologoak egitea eskatzen dute. Oraingoz disparte galanta egina dago arduradun berrien eskutik: eskabadora sartu eta aztarna asko hondatu dituzte. Une honetan, Iruña Veleia aztarnategia arrisku handian dago. Askok gogora ekarri dute Altamirako kobazulo famatuarekin gertatu zena. Pinturak faltsutat jo zituzten garaiko zientzialari ospetsuenek. Marzelino Sanz aurkitzailea gezurtizat hartu zuten. Bera hil ondoren etorri zen onarpena eta bere alabari eskatu zioten barkamena. Aitak ez zuen zorte hori izan, eta fama txarra berekin zuela joan zen beste mundura. Historiak bira asko ematen ditu eta erruak ere behin eta berriz birak ematen dituela ikusten ari gara. Penagarria da Eliseo Gil eta Idoia Filloy-ekin gertatzen ari dena. Beraien izena gutxietsita gelditu da une honetan eta etorkizuna zalantzan. Zientzialari askori J.M. Barandiaran handiaren apaltasuna ez litzaioke gaizki etorriko. Apaltasuna dela eta, Bittor Kapanaga Otxandiotarra jakintsuak, bere “Euskera erro eta gara” liburu interesgarrian kontatzen du J.M.Barandiarekin izandako gertaera, elkarrizketa labur baten bidez. Ataungo bere etxe aurrean zeuden frutabolei begira. Tartean sagarrondo bat uztaz gainezka zegoen, adarrak makur-makur eginda. Eta Joxemiek esaten dio: *Ikusten dok hori? Ez dauka arrokeririk batere. Umil-umila da. Holakoxia izan biok.*



**Prentsatik bildutakoak**

«Joan. Eta berdin du nora, joan, itzultzeko beti baitago denbora. Nire bizitza aldaketan dago beti, bidaian jarraitu nahi dut, ikasten, indarrak bukatu arte. Duela hilabete batzuk Berara itzuli naiz, gainera, eta uste dut itzuli naizela berriro joaten hasteko, joaten jarraitzeko». «Musika zuzenean eskaini aurretik denbora eman behar duzu zain, denbora nozioa ere aldatu egi-ten da denborarekin».

**Joseba B LENOIR**  
Berako musikaria  
GAUR 8 • 2015.09.12



«Hogeita hamar bat lagun badago Sarako Ondarea elkartearen xinaurri lanetan ari dena. Harrigarrai da zenbat alor jorratu edo jorratzen ari duen. Hara *Usoak sarean* erakusketa, 2011z geroz ondua, (...) Hara ere *Belar bilduma*, laborantza etxalde bateko 42 landare mota zerrendatu eta beiraturik beren euskarazko hitzekin, Mikel Duvert-en inguruan, 2012az geroz eraman den lana».

**Henri ERRANDONEA**  
Sarako Ondarea  
HERRIA 2015.09.17

**11 galdera labur****Nor da Itsaso Elizagoien?**

20 urteko trikitilari etxalartarra.

**Nondik datorkizu musikarako afizio hau?**

Aita besta zalea izan da beti. Baina gure familian lehenengoa trikitixa jotzen lehengusina izan zen, ahizpa gero.. Eta ni beraien biek ikusita.

**Zer ematen dizu trikitixak?**

Gauza on aunitz. Bat aukeratzekotan beraren aitzaki ezagutu ditudan pertsonak.

**Pasa daiteke egunen bat trikitixa jo edo aditu gabe?**

Trikitixarik gabe pasatzen ditut egunak, musikarik gabe ez.

**Txapelketak edo erromeriak nahiago?**

Hagitz gauza diferenteak dira. Txapelketak bukatu ziren guretzat eta orain erromeriatan hagitz gustora gabiltza.

**Trikiti edo erromeririk gabeko festa bat?**

Ez naiz ostatutako musika komertzialaren aldekoa baina konpainia ona bada, besta ederra seguru.

**Informatika ikasten... bazu loturarik musikarekin?**

Gaur egun informatika leku guztietan dago... kar kar...

**Festarik festa lan egin behar gaue-ro....**

Festarik festa hor nabil ni egunero... Aunitz miresten dudan trikitilari batek kantatzen zuen kanta da.

**Gustuko ez duzun zerbait?**

Armiarmak.

**Noizko CD-ren bat?**

Gure amak nahiko lukeena baina beranduago, baina ailegatuko da.

**Amets bat?**

Bat bakarrik? Alaitz eta Maider, Maixa eta Ixiar eta Tapia eta Leturi Band-en kontzertu bat

Etxalarko plazan ikustea, Etxalarko trikitilari txupinazoa botatzea, Aisterrazuko erromeria inoiz ez bukatzea...



**Itsaso ELIZAGOIEN → Etxalarko trikitilaria**

**sarobe**  
gozotegia okindegia

pº de eztegarra 25 bajo  
31780 berá (navarra) t.948 63 08 99  
[www.sarobe.net](http://www.sarobe.net)

**MARITX**

Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak  
T. (0034) 636 617 450

**LABEZAR**

Tel: 948 631 076 · BERA

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)  
Posta: Koskontako bidea, 07-1 31770 LESAKA  
Tel.: (0034) 948635458 Faxa: (0034) 948635457

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

**CEDERNA-GARALUR** → IRAILAREN 17AN AUKERATU ZUTEN LEKUNBERRIN EGINDAKO BATZARREAN

# Maite Iturre da Cederna-Garalur Garapen Agentziako presidente berria

Baztango EHBilduko zinegotziak Zuzendaritza Batzordeko 32 kideetatik 26ren boza lortu zuen

## TTIPI-TTAPA

Maite Iturre Baztango EHBilduko zinegotzia izanen da Cederna Garalur Elkartearen presidentea datozen lau urteetan. Hala erabaki zuen Lekunberrin irailaren 17an bildu zen Zuzendaritza Batzorde berri-  
tuak.

Nafarroako medialdeko garapen sozioekonomikoari dagokionez erreferente nagusia da elkarte hau, eta orain bete da aurreko uztaillean hasi zen gobernu organuen berrikuntza prozesua. Prozesu honetan gobernu-organohauetan mendialdeko erakunde sozial eta pribatuen partehartzeak goiti egin du.



UTZITAKO ARGAZKIA

Cederna-Garalurreko zuzendaritza batzordea Lekunberrin. Maite Iturre presidente berria aitzinean, ezkerretik hasita bigarrena da.

Maite Iturreren hautagaitza izan zen aurkeztu zen bakarra, eta saioan bildu ziren Zuzendaritza Batzordearen 32 kideetatik 26k eman zioten aldeko botoa. Lizoain-Arriasoitiko alkate den Amaia Ekisoain izanen da lehendakari orde berria, antzeko babesarekin. Etapa berri honen hasiera, hortaz, batasuna-

ren zeinuak markatzen du. Lehenengo aldia da elkartearen presidentzia emakume baten esku geratzen dela. Azken urtean Cederna Garalurrek genero berdintasun plan bat ezarri du, eta, horren baitan, elkartearen estatutuetan bere gobernu-organoeetan ordezkaritza parekidea izan dadin beharra jaso da. Politika horren

ondorioz Zuzendaritza Batzordean emakumeen presentzia nabarmen igo da, aurreko legealdiko %25etik %41,18ra, estatutuek agintzen dutena beteaz.

Zuzendaritza Batzordearen idazkaritzarako Sakanako Garapen Agentziako Iker Mantrola hautatu zen, eta, diruzain moduan, EHNEko Joseba Etxarte.

## PROGRAMA

EH Bilduk Cederna Garalur erakundeko presidentziarako aurkeztutakoan zenbait ideia proposatu zituen datozen lau urtetarako programan.

- Zuzendaritza Batzordetik haratago tokiko batzorde sektorialetan ere indartu behar da udalen zein pribatuen parte-hartzea.
- Egiten diren kontratazioetan bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko gaitasuna bermatu behar da.
- Lehentasunak identifikatzea eta eskualde mailako proiektuak edukitzea.
- Gardentasuna, komunikazioa, eta parte-hartzea.
- Garapen endogenoaren aldeko lehentasuneko proiektuak martxan jartzea.
- Emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea.
- Mugaz gaindiko lan-kidetzak.
- Formakuntza, unibertsitateekin elkarlana.



**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiaik
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

948 631 218  
Kanttonberri 1, BERA

# KATEA-BIKE



bizikletak, osagarriak eta rock&roll!!!

CONDOR ORBEA  
MASSI  
SCOTT MERIDA

# ERROTAR

harategia



BERTAKO  
PRODUKTUAK

Eztegara, 3 · BERA  
T./F. 948 630 088  
info@errotazar.net  
www.errotazar.net



# UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA

**KULTURA** → 93 ARGAZKI AURKEZTU DIRA

## Pello San Millan irabazle Udako I. Argazki lehiaketan

Matixa Mitxelenak eskuratu du publikoaren saria

### TTIPI-TTAPA

93 argazkiren artean Pello San Millanen *Mediterraneo urdiñe* argazkia izan da epaimahaiaren saria lortu due-

na. Isabako Txapatera apartamentuan 6 lagunendako 2 gaueko egonaldia eskuratu du.


Ttipi-Ttapa aldizkariak eta Xorroxin Irratiak elkarlanean antolatuta dute lehiaketa, eta Erran.eus atariaren bidez gauzatu da. Bertara igo dituzte lehiakideek udan ateratako argazkiak eta web gune-ko erabiltzaileei ere hi-



ARGAZKIA: PELLO SAN MILLAN

Pello San Millan arizkundarraren *Mediterraneo urdinek* irabazi du epaimahaiaren saria.

tza eman nahi izan zaie, publikoaren saria aukeraturaz. Matixa Mitxelena *Hiru Erregeen Mailatik* argazkiak jaso du boto gehien eta berak irabazi du Berako Zalain jatetxean 4 lagunendako otordua.



ARGAZKIA: MATIXA MITXELENA

Matixa Mitxelena lesakarraren *Hiru Erregeen Maila* argazkiak irabazi du publikoaren saria.

**BORTZIRIAK<sup>SL</sup>**  
25 urte eskerrak asko gustatu!!!

**HILABETE HONETAKO ESKAINTZA Bortziriak-en**

**ARROPA-GARBIGAILU eta LEHORGAILUETAN ESKAINTZA ZABALA**

**GALDETU FINANTZAKETA MODUAK**

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

**BORTZIRIAK<sup>SL</sup>**  
25 urte eskerrak asko gustatu!!!

**expert**

**%20 DESKONTUA SUKALDE ALTZARIETAN**

**MAHAI eta AULKIETAN ESKAINTZA BEREZIAK**

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091  
info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

### LAU SARI GEHIAGO

Irrisarri Landerako lau sarrera bikoitz zozketatu dira parte hartu duten argazkilarien artean

### TTIPI-TTAPA

Bi sari nagusiez gain, udako argazki lehiaketa-ko partehartzaileen artean bertze lau sari zozketatu ditu ERRAN.EUS atariak. Igantziko Irrisarri Land abentura parkerako lau sarrera bikoitz berezi, hain zuzen. Hauek izan dira saridunak: Rosa Errandonea, Maider Petrirena, Maite Altzuren eta Maria Plaza.



# UDAZKEN - NEGUKO MODA 2016

UDAZKENA IRITSI DA, HAIZE EPELA FRESKO BIHURTUKO DA ETA HOSTOAK DANTZAN HASIKO DIRA! UDAKO ARROPA ARINA GORDE ETA ARMAIRUA JERTSEZ, JAKAZ ETA GALTZA LUZEZ BETETZEKO GARAIA DA.

Galtza estuak eta artilezko jertseak erabiliko dira, alkandora zuri eta bufanda lodi batekin konbinatuta. Marrazkidun kamiseta zuriak eta estanpatuak gomendatzen dituzte moda adituek, baita argazki errealistak dituztenak ere.

Hotzik ez pasatzeko parkak, edota larruzko txaketak ere gomendioen artean daude. Azken hauek estilo formal edo informalean erabiltzeko egokiak. Sudadera eta alkandora bakeroak ere ez dira modaz pasako aurtengoan.

Koloreen artean gris argia izanen da nagusi eta horrekin batera, berde iluna ere asko eramanen da beroki, jertse eta galtzetan.

**KOLORE NAGUSIA GRISA IZANEN DA, GRIS ARGIA.**

**APAINGARRI**en artean, txanoak eta biserak topatuko ditugu. Artilezko txanoak eta larruzko biserak izanen dira burua goxo mantentzeko aunitzen aukera. Leporako, berriz, zapi edo bufandak gomendatzen dira.





**MERCHE MODA NOVIOS**

**RAMON SANJURIO**  
**ROY ROBSON**  
**FUENTECAPALA**

Serapio Múgica, 11  
20302 IRUN  
943 612 626





[www.capelettimercheirun.com](http://www.capelettimercheirun.com)





**NEURRI HAUNDIAK**

**KAPRITXO**

Opariak  
Bitxiak  
Nesken arropa  
Mutilen arropa

T. 948 510 748  
LEITZA

**markak**  
CENSURED · LOIS  
CABANA · DASNE  
PRONTO MODA

*Belzunegui*  
DESDE 1901

Emakume eta gizonezkoen moda · Etxeko arropa



Jaime Urrutia 44 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 056

**JUAN J. PIKABEA**  
SENARGAIENTZAKO TRAJEA  
15 egunez  
**ZURE NEURRIRA**



Neurri haundiak  
Galtzak eta bakeroak 70 arte  
Atorak 56 arte  
Jertseak  
NEURRIRA EGINDAKO GALTZAK

Pine Cardin · DIESEL · LOTUS · PIONEER

Ameztieta z/g · DONEZTEBE  
Tel. 948 451 670



**Calzados VIRGILIO**  
OINETAKOAK

Larunbat arratsaldetan irekia  
FAMILIA UGARIENDAKO %10eko deskontua

Santiago,32 · ELIZONDO · 948 580 209  
www.calzadosvirgilio.com

# GIZONAK

**TRAJE BAT EROSTEKO ASMOTAN DABI-LENARENTZAT, HONATXAURTENGOTEN-DENTZIA ETA AHOLKUAK:**

## TRAJE GRISAK.

Gris kolorez tindatuko dira gizonezkoen trajeak ere. Bi botoi dituzten jakak dira ongiengertzen direnak: botoi bat baka-rrik lotuz. Era guztietako alkandorekin konbina litezke, baita kamiseta arrun-tekin ere. Grisak ez du zertan beti ar-gia izan behar. Gris ilunaren aukera hartu eta alkandora zuri bat jarrita, itxura klasikoagoa lortuko da. Le-poalde zabalagoa duen jertse batekin, ordea, modernoagoa.

## TRAJE URDINAK.

Traje urdina oso modan dago. Ospakizun berezietara joateko erabili daiteke, baita lanera joateko ere. Urdin deigarriagoa ere erabiliko da. Laukidun alkandora eta gorbata ilun batekin konbinatu daiteke.



# OINETAKOAK

**EROSOAK  
IZATEAZ GAIN,  
JANZKERAREKIN ERE BAT  
EGIN BEHAR DUTE.**



Goitik beheiti apain-apain joatea bada asmoa, ezin dugu oinetakoekin hanka sartu. Aurtengo udazken-neguan antea izanen da emakumeen oinetakoetan gehien erabiliko den materia-ria: botak, botinak, zapata takoidunak, takoi gabeak... Koloreei dagokienez berriz, beltza eta marroia izanen dira nagusi, arroparekin konbinatzeko errazena dira gainera. Belaunetik gorako botak ere tokia irabazten doaz: galtza, soineko edo gonekin janzteko egokiak.

## GIZONEZKOEI

dagokienez, botak dira na-gusi.. Militarrek erabiltzen dituztenen tankerakoak gomendatzen dituzte baina zertxobait baxuagoak. Kolo-reei dagokienez, gizonez-koetan ere marroia eta beltza izanen dira erabilienak. Kiroleko oinetakoak ere ez dira faltako. Kirola egite-rakoan erabiltzeaz gain, bai-ta itxura *casual* edo moder-noagoa nahi duenarentzat egokiak dira oso.





# ZATOZ VENTA PEIORA MODA EZAGUTZERA

3 POMMES BENZI BELLOSTA MORLANS BIMSAK CALVIN KLEIN CONVERSE DELSEY DENIM & SUPPLY DESIRES DESIGUAL DOCKERS EA7 ARMANI EASTPAK ESPRIT G-STAR HACKETT HELLY HANSEN HILFIGER DENIM I.CODE IKKS JACKS&JONES KAPORAL KOCCA LACOSTE LACOSTE LIVE LEE LEVIS LITTLE MARCEL LOLLIPOPS MANGO NAPAPIJRI ONLY ONLY PLAY ORCHESTRA OXBOW PEPE JEANS PETIT BATEAU PROMISE RALPH LAUREN RELISH RIP CURL SAMSONITE SELECTED SOLID SUPERDRY THE NORTH FACE TOMMY HILFIGER TRANGOWORLD TRESPASS VANS VERO MODA VIOLETA WRANGLER

**PEIO**  
mode

WWW.VENTA-PEIO.COM

Tel: +34 902 210 800 (es) | 0820 562 267 (fr)

Arnegui | Dantxarinea | Behobia | Landibar | Agus Benta | Ibardin





# HAURRAK HAURRAK HAURRAK

**ARROPA KONFEKZIOAK**  
**MARI CARMEN**



Braulio Iriarte 22 (Antxitonea ondoan)  
ELIZONDO - T 948 580 883

**idoia oteiza**  
ileapaindegia



ILEAPAINDEGIA | KERATINA | MAKILLAJE ZERBITZUA | TRATAMENTUA  
BURUA GARBITZEKO AULKIAK SHIATSU MASAJE SISTEMAREKIN  
Plazaburua, 9 behea | ELIZONDO | T. 948 580 390  
info@idoiaoteiza.com | www.idoiaoteiza.com

**ARRATE ESTETIKA ZENTROA**



**AURPEGIRAKO TRATAMENDUAK:**

- Aknearen aurkakoa 45€
- Zimurren aurkakoa 80€
- Peeling laukoitza 65€
- Lifting efektukoa 68t€
- Gorritzeen aurkakoa 50€
- Begi eta ezpain kontornoa 45€

**MANIKURA ETA PEDIKURA**

- Manikura normala 15€
- Pedikura normala 15€ - 30€
- Permanentea 30€

**MAKILLAJEAK**

- Egunekoa
- Gauekoa
- Ezkontzetarako
- Jaunartzeetarako

**PRESOTERAPIA 20€**

**DHA 30€ osoa**

**DEPILAZIOAK:**

- Arrunta
- Laser depilazioa: Bertan galdetu




Parrokia, 18 behea  
31740 DONEZTEBE  
948 450 286



## EROSO BEZAIN DOTORE

Haurrek arropa eroso eramatea ezinbertzekoa da. Egunerokotasunean laisterka, salto, dantza... askatasunez egin dezaten. Honek ez du esan nahi konbinaketak eta estiloa kontuan hartuko ez direnik.

Aurtengo denboraldian 70. hamarkadako modan oinarritu dira etxeko txikientzat arropa diseinatzeke, itxura retroa, alegia. Kolore ilunak, neguko ehunak eta estapatuak izanen dira nagusi. Erosoa izateaz gain, itxura hipsterra eramango da. Piltillo estiloko galtzak ikusiko dira, artilez egindako koloretako jertseekin edo laukidun alkadorekin konbinatuta.



## GOMINARIK GABEKO ILE HARROTUA


Garbitzeko, orrazteko eta lehortzeko hagitz eroso da ile motza eta moda modan dago gainera aurten. Ile motz eta asimetrikoa da proposatzen dutena, atzetik eta alde batetik asko moztu eta bertze aldetik flekillo luze bat utzi-az. Orrazkera hau aurpegi borobila dutenei hagitz ongi geratuko zaie.

Bestalde, ile motza nahi ez dutenei, sorbalda gainetik edo belarri azpitik mozte proposatzen diete. Kapa ezberdinetan moztua eta harrotua edo kizkur naturalekin orraztua eramatea beste aukera bat da.

Gizonen kasuan, gominarik gabeko ilea eramango da. Luzea edo motza eramanda, alboetatik motzago eramatea proposatzen dute. Goikaldea luzea eramaten bada, atzeraka orraztuta jartzeko aukera dago.

## BEGIAK BELTZ, MASAILAK GORRI

BETAZALAK ITZAL BELTZEZ MARGOTUAK  
ERAMANEN DIRA ETA BEKAIN ZUZENAK  
ETA ZABALAK, BEGIRADA BIZIA IZATEKO,  
MASAILETAN ETA EZPAINETAN, BERRIZ,  
GORRIA NAGUSITUKO DA. AZKAZALETAN  
AZKENIK, KAFE KOLEOREA DA  
DENBORALDIKO BERRIKUNTZA.





**NESENTZAKO** soineko lorehunak dira gehien gomendatzen dituztenak, gainera, artilezko txalekoekin konbina litezke. Txikiak galtza kanpanak eta ilehun txaketak jantzita ere, benetan dotore egonen dira. Kolore ilunez aparte, gorria eta mostaza kolorea ere aunitzetan ikusiko dira: alaitasun puntu bat emanen diote haurren janzkerari. Konbinaketa egokiak egiteko gainera, oso erabilgarriak izanen dira kamiseta txuriak edo kolore bakarrekoak.



**IBARROLA**  
Haurrendako arropa  
0-14 urte  
Parrokia kalea 6 · Doneztebe  
948 450 463

LARUNBAT ARRATSALEDETAN IREKIA

B-KARO Bimbalina mayoral 3pommes Kiriki media infantil tuc tuc

 A collage of children's clothing items, including jackets, dresses, and pants, displayed in various poses.


Serapio Mugika, 15 | IRUN | 943 618 033  
[www.mirentxu.net](http://www.mirentxu.net)

# mirentxu

0-16 neurriko umeen arropak  
8-16 urteko neska mutikoetan berezituak  
Bertan eskuz egindako soinekoak  
Bodyak, baruko arropa, leotardoak,  
galtzerdiak, seaskak, oinetakoak

Name it · Wsp! kids · IDO · Nike  
Xti · Boboli · Pangasa · Condor · Elike





**IPINGI** Santiago 88 ELIZONDO T. 948 580 939 info@ipingi.es

ARROPA eta OSAGARRIAK [www.ipingi.es](http://www.ipingi.es)

OSPAKIZUNETARAKO JANTZIAK

**Lulu**  
38tik 64ra bitarteko neurriak

LARUNBAT ARRATSALDEETAN ITXIA

**Lulu**

# EMAKUMEAK

## MINIGONAK



Arropa erostera joan baino lehen jakin beharra dago denboraldi honetan zerk izanen duen arrakasta. Edozein look janzterako orduan, kontuan osagarriek garrantzia handia dutela. Arropari dagokionean, minigonak ez dira modaz pasa eta aurtengo udazkenean goitik beherainoko botoiekin ikusiko ditugu. Bakero eta antezkoak izanen dira arrakastatsuenak. Hala ere, eskoziar itxurako laukiak bueltan datoz eta nahiz eta kolore desberdinetakoak izan, elkarrekin konbina daitezke.

# BUFANDA OSO HAUNDIAK

Manta itxurako bufanda erraldoi eta goxoa izanen da negu honetarako aukerarik dotore eta modernoena! Maxi bufandak lepoaz gain, sorbaldak eta besoak berotzeko aukera emanen du.





AK

# BAKEROA

Bakero edo tejanook urtaro guzietan erabiltzeko aukera dago, ez dira sekula modaz pasatzen eta udazken honetan ere arrakasta handia izanen dute gizon eta emakumeengan. Denim estilo bezala izendatu da eta Egunerokoan erabiltzeko arropa erosoa izan eta dotore janzteko aukera ere ematen du. Galtzei itxura modernoagoa emateko, azpialdea goiti doblatzea proposatzen da. Galtzez gain, alkandorak, gonak, soinekoak, txalekoak,... denetik aurki dezakegu.



MODA ETA OSAGARRIETAN  
BEHAR DUZUN GUZTIA



facebook

NOBADADEAK  
Facebooken.  
Egin zaituzte gure lagun!!

Amezitia DONEZTEBE · T. 948 450 163  
centroamaya@zarbo.net



**BEOLA-ETXEA**

/ supermerkatua / bar / jatetxea /  
/ lurrindenda / moda /

Ibardin gaina, 30 BERA T. 948 630 709  
www.beolaetxea.com



**UDAZKEN-NEGUKO MODA BERRIA  
DAGOENKO ZURE ESKURA!!!**

**OSAGARRI, BITXI, BOLTSO eta  
OINETAKOETAN AUKERA ZABALA**

**gizon eta emakumearentzako arropa**

**LURRINDEGAN sekulako eskaintzak!**

**Bench.**

**smash!**

Paramita...  
...



**!Solid**

**Refresh**

**SURKANA**

**ICHI**

**Xti.**

**BL**

**arropa-denda**





# HEZKUNTZA

IKASTURTE HASIERA → IKASTETXEETAKO DATUAK

## Eskualdeko 5.425 ikaslek hasi dute ikasturtea

### TTIPI-TTAPA

lazar baino 88 ikasle gehiagok eman diote hasiera ikasturteari Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Leitzalde, Malerreka eta Xareta.

Nafarroan, bertze behin ere, LOMCE legeak eman du hizketagaia. Nafarroako Gobernuak legearen eragina ahalik eta txikiena izateko bideak

landuko dituela adierazi du. Espainiako Hezkuntza Ministerioak ere, Erkidegoen eskaerei erantzun eta iragarri du ez dituela indarrean jarriko DBHko 4.mailan eta Batxilergoko 2.ean egitekoak zituzten azterketak.

Ipar Euskal Herrian berriz, morala ikasgaiaren ezarpenarekin abiatu da ikasturtea.

### BIGARREN HEZKUNTZA / KOLEGIOA

BIGARREN HEZKUNTZA			
	A eredua	B eredua	D eredua
<b>BAZTAN</b>	<b>33</b>	<b>0</b>	<b>291</b>
Lekaroz			
<b>BORTZIRIAK</b>	<b>15</b>	<b>33</b>	<b>287</b>
Arantza IP			11
Bera (Toki Ona)	15	33	228
Bera (Labiaga Ikastola)			48
<b>LEITZALDEA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>166</b>
Goizueta			10
Leitza (Amazabal)			156
<b>MALERREKA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>185</b>
Doneztebe (Mendaur)			185
<b>XARETA</b>	<b>140</b>	<b>95</b>	<b>9</b>
Senpere (Arretxea)	140	95	
Urdazubi-Zugarramurdi			9
<b>GUZTIRA</b>	<b>188</b>	<b>128</b>	<b>938</b>
2015-2016 Guztira: 1.254	↑		
2014-2015 Guztira: 1.212	% 3,35		

### BATXILERGOA

BATXILERGOA			
	A eredua	B eredua	D eredua
<b>BAZTAN</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>115</b>
Lekaroz			
<b>BORTZIRIAK</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>76</b>
Bera (Toki Ona)			76
<b>LEITZALDEA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>69</b>
Leitza (Amazabal)			69
<b>GUZTIRA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>260</b>
2015-2016 Guztira: 260	↓		
2014-2015 Guztira: 276	- % 6,15		

### HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAK

2015/2016

	HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA		
	A eredua	B eredua	D eredua	A eredua	B eredua	D eredua
<b>BAZTAN</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>232</b>	<b>15</b>	<b>0</b>	<b>528</b>
Almandoz IP						9
Amaiur IP			12			19
Arizkun IP			14			37
Arraioz IP			9			11
Azpilkueta IP			4			3
Baztan Ikastola			68			141
Elizondo (S. Fco. J.)			74	15		169
Erratzu IP			12			26
Gartzain IP			6			11
Irurita IP			21			56
Oronoz IP			8			33
Ziga IP			4			13
* D-PAI ereduak.						
<b>BERTIZARANA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>25</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>27</b>
Legasa IP			14			13
Narbarte IP			11			14
<b>BORTZIRIAK</b>	<b>7</b>	<b>16</b>	<b>289</b>	<b>23</b>	<b>45</b>	<b>508</b>
Arantza IP			26			36
Bera (Ricardo Baroja)			72			138
Bera (Labiaga Ikastola)			44			101
Bera (Jesusen Bihotza)	7	16		23	45	
Etxalar IP			33			46
Igantzi IP			16			37
Lesaka (Irain IP)			55			80
Lesaka (Tantirumairu)			43			70
* 2 urtekoak barne						
<b>LEITZALDEA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>129</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>241</b>
Areso IP			8			20
Goizueta IP			20			42
Leitza IP (Erleta)			101			179
<b>MALERREKA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>151</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>353</b>
Beintza-Labaien IP			2			7
Doneztebe (S. Migel)			87			240
Ituren IP			29			38
Saldias IP			4			4
Sunbilla IP			29			64
<b>XARETA</b>	<b>89</b>	<b>139</b>	<b>149</b>	<b>183</b>	<b>207</b>	<b>157</b>
Sara (Publikoa)	1	17		5	17	
Sara (St. Joseph)		35		14	59	
Sara (Olhain Ikastola)			48			61
Senpere (Publikoa)	34	87		80	93	
Senpere (Amotz publ.)	25			40		
Senpere (Zaldubi ikas.)			32			64
Senpere (St. Joseph)	29		49	44	38	
Urdazubi-Zugarramurdi			20			32
* Lehen Hezkuntzako datuak 6-11 urte artekoak dira Sara eta Senperen.						
<b>GUZTIRA</b>	<b>96</b>	<b>155</b>	<b>975</b>	<b>221</b>	<b>252</b>	<b>1.814</b>

### HEZIKETA ZIKLOAK

	HEZIKLETA ZIKLOAK				
	OLH	Prest.	HL KP	Erdi M.	Goi M.
<b>BAZTAN</b>	<b>28</b>	<b>20</b>	<b>4</b>	<b>78</b>	<b>16</b>
Elizondo	20	8	20	0	3
Lekaroz				1	26
<b>BORTZIRIAK</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>32</b>	<b>25</b>	
Bera (Toki Ona)			32	25	
<b>XARETA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>195</b>	
Senpere (Laborantza)				195	
<b>GUZTIRA</b>	<b>28</b>	<b>20</b>	<b>4</b>	<b>110</b>	<b>236</b>
2015-2016 Guztira: 398	↑				
2014-2015 Guztira: 393	% 1,25				

### HAUR HEZKUNTZA

2015-2016: 1.226	↓
2014-2015: 1.230	- % 0,33

### LEHEN HEZKUNTZA

2015-2016: 2.287	↑
2014-2015: 2.226	% 2,67

### HIZKUNTZA EREDUAK

A eredua	Erdara hutsean
B eredua	Mistoa
D eredua	Euskara hutsean



**KULTURA** → IRAILAREN 20AN

# 28 margolan aurkeztu dituzte aire libreko XI. lehiaketara

Erandioko Jose Miguel Arranz-ek irabazi du lehen saria eta Eibarko Esteban Oroz-ek bigarrena

an Jose Altuna, Berako Manolo Sanz eta Carlos Espinaren lanei.

Aitor Elexpuru zinegotzia Udalaren izenean eta Jaione Dozagarat Gure Txokoako presidentea izan ziren sari banaketan.

## Euskara Batzordearen hausnarketa saioa

Euskara batzordeak hausnarketa saio bat egiten du urriaren 3an, larunbatean 16:00etatik 18:30era Beralandetan. Helburua da elkar-tzen direnen artean, modu atsegin eta dinamikoan, euskarak Beran bizi duen egoera aztertzea eta denon artean lan ildo batzuk eta ekin-tza batzuk adostea. Sai-oan parte hartzeko ait-zinetik izena eman behar da, batzordeko ki-deren bati erranez, edo-ta euskara mankomu-nitatera deituz edo ida-tziz (948 634 125 / eus-kara@bortziriak.eus).

## Artzain Amerikanoen besta

Aitzineko alean aipa-tu bezala, urriaren 3an herrian ospatuko da



UTZITAKO ARGAZKIA

Margo lehiaketako saridunak, epaimahaikide, antolatzaile eta udal ordezkariekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Konpaneko zubi zaharberritua inauguratu dute Illekuetan

Auzoko bestetako txupinazoa bota bidenabarkoan, auzolanean zaharberritu-tako Konpaneko zubia inauguratu zuten Illekuetan. 1736an eraiki zuen zubia Lucas Larzabalek eta joan den urteko ekainean hasi zen moldatzen San Migel zubian ere aritutako jubilatutako taldea. Itxura ederrarekin gelditu da.

Artzain Amerikanon bes-ta. Larunbat goizeko 10etan harrera egiten zaie artzainei. Eguer-diko meza ondotik ome-naldia egiten diote Do-lores Lazkanori eta Ban-kako Menditarrak ariko dira kantari. 13:30ean bazkaria eta bazkalon-

## Ba al zenekien

**Ibardin Longboard Fest 2015 proba urriaren 10 eta 11n egiten dutela Ibardinen. Gehienez 100 rider onartuko dituzte eta urriaren 2an bukatuko da izen emateko epea: [ibardinlongfest.com](http://ibardinlongfest.com)**

doan zozketak eginen dituzte. Egun osoan, Baztan, Etxalar, Lesaka

eta Berako artzainen ar-gazki erakusketa izanen da Kultur Etxean.

**ERREKALDE**  
PLATER KONBINATUAK OSATUA  
PINTXOAK  
BOKATXAK  
TFNOA: 948 630 259 BERA

**Saragueta** aholkularitza  
abokatu bulegoa  
**Felipe Saragueta. Abokatua**  
• Zuzenbide administratiboa  
• Hirigintza  
• Sozietateak  
• Nazioarteko zuzenbidea  
fsaragueta@abokatua.com  
**Borja Mujika. Abokatua**  
• Komunitateak  
• Herentziak  
• Familia zuzenbidea  
• Erreklamazio zibilak  
bmujica@abokatua.com  
Iparralde karrika 5, beheha · 31780 BERA · 948 625 162

**xirgil**  
jaione goya  
ileapaindegi mistoa  
Altzate 1, 31780 BERA  
948 631 462



## LESAKA

GIZARTEA → UDALAREN BANDOA

# Herri-landaketak kaltetzen dituzten aziendak biltzeko deia egin du

Bertzenaz basa-animaliak deklaratu dituzte eta batida bat egiteko eskatu dio Ingurumen Departamentuari

## Aitor AROTZENA

Udalak egiaztatu du herriak egiten dituen plantazioetan aziendak nahita sartzen dituztela, nahiz eta plantazioak behar bezala mugatuak eta zerrakuraren

bidez itxiak egon. Azimenda horiek kalte handiak eragiten dituzte landaketetan eta ondorioz, udalari gastu handia sortzen dio. Plantazioetan sartzen diren aziendak horiek ez dutela identifikatzailerik ere ikusi da eta ondorioz, nahiz eta harrapatu, ezin izanen litzateke jakin nor den horien jabea.

Beraz, Udalak, alkatetaren irailaren 16an sinatutako bando baten bitartez, herri-landaketetan bazkatzen den aziendaren (ardi, behor, betizu...) titularrei eskatu zuten zaie berahala han-



UTZITAKO ARGAZKIA

## Haur elebidunen hizkuntza arazoak aztertu dituzte

Haur elebidunen (euskara-gaztelania) hizkuntza arazoaren antzematea, balorazioa eta haietan esku-hartzea izenburupean udako ikastaroa egin zuten irailaren 12an, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Udalak antolatua. Bertze gaien artean, haur elebidunen hizkuntzaren garapena eta arazoaren antzematea, entzumen arazoak dituzten haurrei aplikatzen zaien terapia eta berriki haur euskaldunentzako egokitu den Macarthur testa landu zituzten, 40 bat lagunek larunbatean Harriondoa Kultur Etxean. Azken test hau aipagarria da, orain artean ikastetxeetan euskaraz aritzen diren eta gaztelania menperatzen ez duten haurrei ere gaztelaniaz egiten baizitzaien test hau eta hortaz, ez zuten fidagarritasun handirik. Orain, euskaraz egiteko aukera dagoenez, fidagarritasun handiagoa izanen du, batez ere gure inguruko haurrei egiten zaienean.

dik biltzeko. Hori egin ezean, Udalak herri-landaketetan aurkitzen diren etxe-abereen basa-animaliak deklaratu dituzte eta Ingurumen Departamentuari eskatu dio batida bat egiteko fauna suntsitzeko,

eragindako kalte larriengatik.

Aziendak erretiratze-ko epea hogeiguneko izanen da, bandoaren datatik kontatzen hasita. Beraz, urriaren 5a baino lehen bildu behar dira aziendak.

## FLASH

### Erretiratuak Errioxara

San Fermin elkarteak Errioxara bidaia antolatu du urriaren 6rako. Bazkideek irailaren 29ra arte eros zitzaizketen txartelak eta tokia izanez gero, bazkide ez direnek txartelak hartzeko aukera izanen dute irailaren 30 eta urriaren 1 eta 2an, 33 eurotan. 07:30ean abiatuko dira eta San Asensioko eta Haroko azokak bisitatu dituzte. Bastidan errioxar menu tipikoa bazkalduta, Guardia bisitatu eta herrira itzuliko dira. Bertzalde, urriaren 27ko Elkartearen Eguneko txartelak hilaren 14a baino lehen erosi behar dira.

## URRIAREN 31 BAINO LEHEN AURKEZTU BEHAR DIRA

Argazki lehiaketara lanak aurkezteko epea ireki du Beti Gaztek

### A. AROTZENA

Beti Gazte elkartearen 75. urteurrenoko ekitaldien barrenean, argazki lehiaketa antolatu du aurtengoan ere, udalaren laguntzarekin. Nahi duten afizionatu guzietan har dezakete parte eta lanak urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira elkartearen.

Argazkien gaia librea izanen da. Paperean egindako argazkiak aurkeztu beharko dira, zuri-beltzean edo kolorean eta digi-

talki manipulatu gabeak. Argazkiekin batera, CD bat bidaliko da, aurkezturiko argazkiak edukiko dituen, JPEG formatuan, 300 pppko guttieneko bereizmenarekin. Egile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkezten ahal ditu eta berak erabakiko du argazkiaren neurria, nahiz eta bakoitzak gehienez 30x40 cm. ko kartulinan jarrita egon beharko duen.

Lau sari emanen ditu Beti Gaztek. Lehenbizikoa, 350 euro

eta trofeoa izanen da eta bigarrena 250 euro eta trofeoa. Herriko egileen artean argazkirik onenari 200 euro eta trofeoa emanen zaio eta sari berezia, 200 euro eta trofeoa, izanen da kirol argazkirik onenarentzat. Epaimahaiak azaroaren 8an emanen du erabakia eta egun horretatik aza-roaren 30era, erakusketa izanen da elkartearen egoitzan. Egile bakoitzak bakarrik sari bat eskura dezake.

**BEKO**  
LOREAK ETA LANDAREAK  
Frain Auzoa - LESAKA  
Tfnoa: 948 637 826

**IRU BIDE**  
Erretegia · Asador  
Bitorrana, 3 - Lesaka  
Tel: 948 637 127

- Lentzeria  
- Bainujantziak  
- Mertzzeria  
- Jantzi tipikoak  
- Peñen blusak  
**kattogorria**  
lentzeria mertzzeria  
Behoko plaza 10 31770 Lesaka  
T. 948 627 514

**Zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE  
Zalain Auzoa z/g 31780 Bera - Nafarroa  
t. 948 631 106 · 948 630 967  
w. www.zalain.info e. sainz.amaia@gmail.com



OSPAKIZUNAK → URRIAREN 11N

## Usategietako igandea aurten urriko bigarren asteburuan

Larunbaterako ere hainbat ekitaldi aurreikusita daude

### Iruñe ELIZAGOIEN

Aspaldiko ospakizun hau, urriaren bigarren igandean burutuko da, hilaren 11n hain zuzen. Orain arte hirugarren igandean ospatzen bazen ere, aurten aste bat aurreratzea erabaki da Nafarroa Oinezekin topo ez egiteko.

Altxataren eskutik, urtero bezala goizean talo eta bokadilo postua izanen da Lizaietan (eguraldi ona bada). Arratsaldean, berriz, frontoian ostatua jarriko dute. Goizean edo arratsaldean lanean aritzeko laguntza eskertuko dute eta horretarako Altxakideengana jo behar da.

Udalaren eskutik igande arratsaldean Oharkabe taldearekin musika izanen da plaza 19:00etatik 22:00etara.

Honez gain, Etxalar-ko Euskara Batzordeak bezperako arratsalde- ilunabarrerako antzerkia eta musika ere antolatu ditu. Txirene antzerkiak-en eskutik *Birziklatu beharra* antzezlanaren izanen da kultur etxean 18:30ean. 19:30ean gertatzen diren, sagardo eta

pintxoak eskainiko dira plazan, zuzeneko musikarekin.

### Ikasturte hasiera Landagain eskolan

Landagain eskolan irailaren 10ean hasi zuten ikasturtea. Aurten 10 ikasle berri hasi dira: 3 urteko 9 ikasle eta 3. mailako bat. Guztira 14 irakasle eta 79 ikasle daude 7 gelatan.

### Herri merkatua udazkenean ere

Hiru hilabete bete dituzte dagoeneko herriko



ARGAZKIAK: GEMA ARRUGAETA

### Pello Apezetxeak 50 urte apaiz lanetan herrian

Pello Apezetxeak 50 urte bete ditu herrian apez dagoela. Hori dela eta oroitzen tiki bat eskaini zion Parrokiari irailaren 13an. Igandeko mezan txistularien doinuak eta Jabier Perez de Azpeitiaren organo emanaldia izan zen. Meza ondotik elizako arkupean aureskua eta hamaikakoa eskaini zitzaizkien gerturatutakoak.



merkatuak, eta ondoko hilabeteetan ere segitzeko asmoz dabilza. Udazkenari begira, ekitaldiak ere izanen dira merkatuaren inguruan, larunbata goizetan. Txalaparta tailerra, perkusio emanaldia, artilea-

rekin haria egitea, xaboiak egiteko tailerra, sagardo-dastaketa... horiek dira oraingoz aurrerakosten diren ekitaldiak. Eskulangileak ere badira herrian eta haur-lanak ere egoten dira merkatuan. Marraztu-

tako erretratuak egiteko aukera ere bada, enkarguz, argazkia eramanda. Tokiko haziak hartzeko eta emateko ere aukera izaten da. Aldi berean, herriko ekoizpenen eskaintza ere etengabe berrituz doa.



ARGAZKIA: ONINTZE ZINKUNEGI

### Dispertsioaren kontrako mendi martxa


Irailaren 18an Saratik abiatu zen Etxalarerraino. Ilunabarrean pintxo-potea zegoela aprobeztatuz herriko txistulari eta trikitilariak alaitu zuten pintxo-poteoa. Irailaren 19 goizean Etxalartik Igantzira joan zen mendi martxa.



ARGAZKIA: IRUÑE ELIZAGOIEN

### Urritzokietako bestak giro ederrean


Aurreikusitako ekitaldi guztiak arrakastaz beteta giro ederrean ospatu dituzte Urritzokieta auzokoek bestak. 70 lagun inguru bildu ziren igandeko asuan eta eguraldia lagun, gerturatutakoek egun polita pasa zuten.

**USOA**  
Nekazari kooperatiba  
T. 948 635 214  
ETXALAR

- Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Ongarriak • Burdin tresnak
- Insektizidak • Edariak • Haziak

**KALEFAKZIOA eta IBILGAILUENDAKO GASOLIO MERKEENA**

**ETXEZ ETXEKO BANAKETA**

**NEKAZARITZA EKOLOGIKOAK ENEEK**  
NEKAZARITZA BILGINTZA  
NEKAZARITZA EKOLOGIKOAK  
INSTRUMENTALIA TEKNOLOGIA  
E-18-810028-048  
Inskripzio Zenbakia 1435

**Alberto RETEGI**  
abokatuak  
abokatuak  
© 948 630 763 · Altxate, 17 · BERA



# IGANTZI

OSPAKIZUNAK → BESTEN AITZINEKO ASTEBURUA

## Mikel Garaiar eta Luckyk irabazi dute Artzain Zakur lehiaketa



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Mikel Garaiar irabazlea, alabekin eta Lucky zakurrarekin.

Bederatzi gazta aurkeztu ziren lehiaketara eta Goiz Argiko Amalia Sein suertatu zen garaile

eskuratuta. Bigarren Joxe Mari Istilart arizkundarra Lagunekin (137 puntu), hirugarren Mikel Aizpurua oiartzuarra, Xuker zakurrarekin (123 puntu), laugarren Aitor Tato ataundarra Aitz zakurrarekin, (119 puntu), bosgarren Jorge Oteiza oronoztarra Arakilekin (100 puntu) eta seigarren Felix Irigoien amaiurtarra, Perla zakurrarekin (83 puntu).

Sari banaketan, Lourdes Ibarluzea, Angel Urtxegi eta Urtzi Loiarre, jarduneko alkate eta zinegotziak izan ziren.

### HAMARGAREN GAZTA LEHIAKETA

Artzain Zakur lehiaketaz gain, besten aitzineko asteburua ekitaldiz betea joan zen



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Argiñenborda, Goiz Argi eta Argarategarakoak, gazta lehiaketako sariak jaso ondotik.

### TTIPI-TTAPA

Aldizkari hau esku artean duzunerako bukatu izanen dira San Migel bestak, baina aitzineko asteburuan ere, ohikoa denez, hainbat ekitaldi egin ziren.

XXXV. Artzain-zakur lehiaketa egin zen irailaren 20an Elustan. Sei artzain aurkeztu ziren beraien zakurrekin eta Zumaian bizi den Mikel Garaiar oiartzuarra izan zen txapeldun Lucky zakurrarekin, 254 puntu

Igantzin. Igande eguerdian, X. Gazta lehiaketa egin zen. Bederatzi gazta aurkeztu ziren eta

horien artean, Goiz Argiko Amalia Sein suertatu zen garaile. Bigarren saria Argiñenbor-

dako Carmen Larralde eskuratu zuen eta hirugarrena Argarategarako Elena Retegik.

**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea  
jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

**SMAZIZIOR** edariak  
T./F: 948 631 557  
Helbidea: Ziobi, 3 ALKAIAGA  
eposta: maziziorsenper@gmail.com  
EDARIEN eta JANARIEN SALMENTA eta BANAKETA

**FRANCONKA, s.l.**  
BILTEGIA 948 630 102  
FAUSTINO 647 810 152  
Bidasoa, 76 - atea 21-22  
31780 BERA

**ANTZUZELAI**  
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK  
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587  
Irungo errep. BERA  
www.antzuzelai.com  
info@antzuzelai.com  
Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, ertalzak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

**LIZUN**  
GAZTANDEGIA  
Sunbilla · Tel: 948 450 862



KULTURA → DOAN ESKURATUKO DITU UDALAK

## Hilabetean behin filmeak eskainiko dituzte Baskulan

Filmazpit programaren barne, udaleko kultura batzordeak abian paratu du ekimena

### Nerea ALTZURI

Udaleko Kultura Batzordeak, Filmazpit ekimenaren baitan, hilabetean behin pelikulak ikusteko aukera eskainiko du Baskulan. Ez da gastu bat Herriko Etxearantz, udalak debalde ditu pelikulak eta jatorrizko hizkuntzan dira, euskarazko azpitoluekin.

Joan den igandean, *Gazako zerria* pelikula eman zen. Hurrengo hilabeteetako hondarreko igandetan ere, emanen diren filmak zehaztuak dira. Hitzordua, 17:00etan Baskulan:

- **Urriak 25:** *Denok akurriak* dokumentala.
- **Azaroak 29:** *Omar* fikziozko filma.
- **Abenduak 27:** *Cirkus Colombia* fikziozko filma.
- **Ilbeltzak 31:** *Hanna*

*Arendt* fikziozko filma.

Etortzen den haur kopuruaren arabera, haurtzaindegi zerbitzua eskainiko da eskolako gimnasioan bizpahiru begiralerekin.

Filmazpit, Zineuskadi elkarteak finantzatu-tako euskarazko azpitoludun zinema zabalteko programa da eta Donostia Zinemaldia, Euskadiko Filmategia eta Tabakaleraren laguntzarekin, Donostia Kulturak kudeatzen du. Euskadiko zinemaldietan emaniko zenbait film aukeratu, proiektatzeko eskubideak erosi eta euskaraz azpitolatzea aurreikusten du programak, instituzio, udal, kultur eragile, irakaskuntza zentruen... esku kostetarik gabe jarritz, erakundeek film hauek jatorrizko bertsoan eta euskarazko azpitoluekin proiektio ez komertzialetan eman ahal izateko.

### Guraso elkartearen junta berritza

Ikasturte hasierarekin batera, eskolako guraso elkartearen batzordea berritu da. Iaztik



ARGAZKIA: IGOR UGALDE

### Pailazioekin irri, kanta eta dantza Pelle Ttikiren alde

Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek eta euren taldekideek frontoia girotu zuten irailaren 19an. *Txo, Mik Mak txikia* ikuskizunarekin, ederki pasa zuten bertaratu ziren haur eta helduek. Pelle Ttiki haur eskolaren alde egindako ekimenean, jende aunitz hurbildu zen herrira. Taloak eta krispetak ere estimatu zituzten, ikuskizunaren bitartean eta ondotik merendatzeko aukera izan baitzuten.



ARGAZKIA: NEREA ALTZURI

### Dispertsioaren kontrako mendi martxa

Arratsalde berberean, ortziralean abiatuiko dispertsioaren kontrako eskualdeko mendi martxa ailegatu zen herrira. Herritarrek harrera egin zieten mendi martxako partaideei eta alkateak hitz batzuk irakurri zituen. Arratsean Ekaitza elkartearen afaldu zuten eta herrian bertan lo egin zuten, biharamun goizean Le-sakarako bidea hartuz.

dauden Ana Maeztu, Koldobike Gorostiza eta Beatriz Tabernarekin batera, Maite Lujanbio, Iñaki Alustiza, Itsaso Be-

reau eta Olatz Irigoien izanen dira batzordean. Aldi honetan, aukeraturiko lau guraso horiek, azken bi urteetan kide

izan diren Ana Larretxea, Mattere Pagola, Gemma Lukanbio eta Mari Karmen Mitxelena ordezkatzeko dituzte.

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
sagardotegia jatetxea  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TEL: 948 625 474

**Goieko** DESINBERA  
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO  
SISTEMA ETA PRODUKTUAK  
DESINFEKZIOAK · DESINSEKTAZIOAK · DESARRATOITZEAK  
Zure inguruak klase guzietako insektuz (xomorro, zinurre, armiarna, kukuza...) eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu daitez Termita eta Pipien tratamenduak  
T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

ALZURI  
ETXERAKO EDERTASUNA  
ASTONDOA  
DROGERIA · MENAJE  
DENDA ESPEZIALIZATUA  
948 625 442  
San Esteban 17 · BERA



# BORTZIRIAK

GIZARTEA → URRIAREN 12TIK 16RAKO ASTEAN

## Euskara Mankomunitatearen 25. urteurrena ospatzeko hainbat ekintza prestatu dituzte

Hautetsiekin lan saioa, erakusketa eta mahai-ingurua izanen dira

### TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Nafarroako beste hainbat euskara zerbitzuko bezala, 25 urte bete ditu aurten. Urteurrenaren harira, hainbat ekimen antolatzen ari dira, urriaren 12tik 16ra, Berako kultur etxeko erakusketa-gelan.

Urriaren 12an, lan-saioa hautetsiekin egin gogo dute. Bortzirietako hautetsi guztiak elkartu nahi dituen saioa, UEMA eta Euskara Mankomunitatea elkarlanean antolatzen ari dira. Ekitaldi itxia izanen da hau, bortz herrietako udal hautetsiei zuzendua.

Urriaren 12tik 16rako aste osoan zehar erakusketa egonen da ikusgai Berako kultur etxean, UEMAren eta Nafarroako euskara zerbitzuen gaineko informazioa duten panelekin. Gehienak UEMAK prestatutakoak dira, eta arnaguneen ideia jorrazten dute. Arratsaldeko 6etatik 8etara egonen da irekita jendea-



UTZITAKO ARGAZKIA

### Euskaltegiko matrikulazioa bultzatzeko Mintzodromoa

Bortzirietako Euskaltegiko matrikulazio kanpainari bultzada emateko asmoz, Mintzodromoa egin zuten irailaren 18an Berako Beralandeta aretoan. Gisa honetako ekitaldia lehen aldiz egin da Bortzirietan. 20 bat lagun elkartu ziren. Helburua zen batez ere euskara ikasten ari direnak edo egunerokotasunean euskaraz hitz egiteko aukera nahikorik ez dutenak agertzea, baina euskaldun osoak ziren bertaratutako gehienak, laguntzeko borondatez azaldu zirenak. Oso eskertuta daude Euskara Mankomunitatetik eta Bortzirietako euskaltegitik, «baina ea hurrengorako proportzio hori aldatzea lortzen dugun. Bortzirietan antolatzen den lehenengo Mintzodromoa zen, eta jendea nahiko ezezagun zaio oraindik ekitaldi mota hau». Mintzodromoak, bukatu eta gero, bakarrik emari eman zion bide: arrakastatsua izan zen, orduerdiko saio umoretsuan jendea gustura egon baitzen. Monologoaren ondoren, Beralandeta utzi eta parte-hartzaileei pintxopoterako bale bana eman zitzaizen, eta Berako ostatueta ibili ziren trago bat edan eta mokadu bat jaten. Mankomunitateak eta Euskaltegiak espero dute matrikulazio-kanpainari bultzada txiki bat emateko balio izatea ekitaldi honek. «Hobetzeko marjina badugu oraindik, eta ez dugu zalantzarik datozen urteetan are eraginkorragoa izanen dela Mintzodromoa».

rentzat. Gainera, Toki Ona institutuko ikasleek ere irteerak eginen dituzte erakusketara goizez, UEMAKo bi langilek gidatuta.

Urriaren 16an mahai-inguru irekia eginen da, Berako Kultur Etxean,

Bortzirietako herri bakoitzeko ordezkari batekin: Arantziatik Mentxu Peña, Beratik Eneritz Rekarte, Igantziatik Patri Arburua, Etxalaratik Axun Maia eta Lesakatik Eduardo Conde izanen dira. Orain arte

egindakoaz eta hemen aurrera egin daitekeenaz solastuko dira, Oskar Goñi moderatzaileak gidatuta. 18:30ean hasiko da mahai-ingurua, eta ondoren ota-mena eskainiko zaie bertaratzen direnei.

### BAZTAN-BIDASOA

Bertso eskolan izen emateko aukera zabalik da aurten ere

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Bertsozale Elkartek bertso eskolatan izen emateko aukera zabaldu du. Gutxienez lau ikasle beharko dira taldea osatzeko eta hiruhileko bakoitzeko 20 euro kobratuko dira. Eskualdeko edozein herritan sortu daiteke haur edo gaztetxoentzako bertso eskola. Eguna eta ordua izena ematen dutenen artean adostuko dira. Izen emateko [nafarroa@bertsozale.com](mailto:nafarroa@bertsozale.com) edo [estiarozena@hotmail.com](mailto:estiarozena@hotmail.com) helbide elektronikotara idatzi edo 948 143747 telefonora dei dezakete.

### MALERREKAN HELDU HASIBERRIENTZAT

Bertzalde, Malerrekan heldu hasiberrientzat 10 saioko ikastaroa eskainiko da. Matrikula 20 euro ordainduko da (10 euro langabe eta ikasleek). Lekua, eguna eta ordua partaideekin zehaztuko da. Izena emateko epea urriaren 8ra bitarte dago zabalik, 948 451746 telefonora deituz edo [euskarazerbitzua@malerreka.inflocal.org](mailto:euskarazerbitzua@malerreka.inflocal.org) helbide elektronikora idatziz.

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

facebook

[www.facebook.com/ttipi.eus](http://www.facebook.com/ttipi.eus)

arropa-denda | etxeko osagarriak | lentzeria

Arduo

Ailtate, 30 31780 BERA T. 948 630 136



KULTURA → IRAILAREN 19AN

## Dantza jaialdiaren zazpigarren edizioa ere bikaina izan da

### 16 dantza eskaini zituzten

#### Maider PETRIRENA

Dantza Jaialdia egin zuten herriko dantzariak irailaren 19an. Zazpigarren urtea da jaialdi eder eta polit hau antolatzen dela eta ikuskizun paregabea eskaini zuten, giroz betea. Hamasei dantza ezberdin dantzatu zituzten. Emanaldia ttikienek ireki zuten, *Neskatxak* eta *Txalo pol-*

*ka* dantzak dantzatu. Ondoren kokkorxeagoen txanda izan zen, hauek ere bertze bi dantza dantzatu zituzten: *Jokua* eta *Borobila*. Jarraian neska gaztetxoek taldeak *Mate-lota* dantzatu zuten; ondoren neska helduek *Arku dantza*. *Sarrera* eta *Txotisa*, *Arin-Latin*, *Zinta dantza* eta *Orpo punta dantza*ekin segitu zuten emanaldiak. Mutilei ere beraien txanda ailegatu zitzaizen *Makil*



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Dantza jaialdian parte hartu zuten taldeetako batzuk.

*handi* dantzarekin. Ondotik, *Bercijana*, *Ziego*, *San Isidro*, *Cortes* eta bukatzeko *Gipuzkoako jota* izan ziren. Zorionak

parte hartzaile guztiei (dantzari eta musikari) eta nola ez irakasleei eta eskerrak bertaratu ziren guztiei.



#### Pertsonaia

Iker MARIEZKURRENA

### San Miguel Liga irabazi du Hondarribiarekin

Iker Mariezkurrena sunbildarrak Hondarribiko Ama Guadalupe arraun taldean parte hartzen du azken urteotan. Aurten, gainera, joan den urtean bezalaxe, San Migel Liga irabazi dute hondarribiarrek. Zorionak denei baina bereziki Iker herritarrari.



ARGAZKIA: ANA URROZ

### Bederatzi ikasle berri eskolan

2015-16 ikasturteari hasiera eman diote 9 ikasle berrik: Goitiko lerroan ezker-eskuin Uxo Arruabarrena, Ander Sarratea, Enaitz Agesta eta Aurbene Iturralde. Beheitian, Sugoi Irazoki, Nahikari Gonzalez, Ainhoa Armendariz, Ibai Maritxalar eta Marko Igoa.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Herreratarrak mendi bizikletan

Irailaren 19an Caja Ruralek urtero antolatzen duen BTT martxan azken karrera izan zuten Herrera anaien Arazurin. Enekok seigarren postua lortu zuten karreran eta sailkapen orokorrean. Argazkian ageri den Koldok, berriz, karrera irabazi zuen.



**5 SESIOKO 5 BONO ZOKKETATUKO DITUGU urtean zehar**

**Toki Ona - Bera**  
UDAL KIROLDEGIA  
5 sesioko bonoa (muskulazio gela, sauna lehorra eta hezea)

Urdu Bera  
T. 948 630 215





# DONEZTEBE

GIZARTEA → EKITALDI EZBERDINAK KOORDINATUZ

## Agenda ekimena abian jartzeko asmoa du Udalak

Urriaren 8an proiektu honen berri emanen zaio herriko talde eragileei eta herritarrei

### Marga ERDOZAIN

Agenda ekimena abian jartzeko asmoa du Udalak. Aurkezpena urriaren 8an, arratsaldeko 8etan Erakusketa Aretoan egingen da. Herrian orain arte antolatutako ekitaldi ezberdinak koordinatu eta indartzeko asmoa abiapuntu izanda, Udalak agenda ekimenaren aurkezpena antolatu du. Kultur taldeak, kirol taldeak, komertzianta tal-

deak, guraso elkarteak, gazte taldeak... deitu ditu udalak hitzordu horretara. Agendaren nondik norakoa aurkeztuko da eta norbanako eta talde guztien ekarpenak jasoko ditu udalak. Ondoren, hilabeteko plangintza adostu eta koordinatuko da. Agenda barrenean zinea, kirol jarduerak, feriak, ospakizunak, antzerkiak, bertso emanaldiak, musika emanaldiak, ipuin kontaketak, ikastaroak... bilduko dira. Agenda zabaltzeko eta herritarrengana ailegatzeko sare sozialaz gain, kartelak baita esku-paperak edo biorrikoak prestatuko dira, hilabetero etxe guztietara ailegatzeko.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

### Eskoletako pilotalekuak Ezkurra izena du

Irailaren 18an herriak Koteto Ezkurrari eskainitako omenaldian ustekabe anitz izan ziren: Maialen, alabak dantzatuko auresku hunkigarria, Kotetorekin batera profesionalean hasitako kideen besarkada eta argazkia, zale sutsuen opariak, familiaren izenean Juanik (amak) oparitutako gerrikoak... Horien ondoren eta, familia argazkiak egin ondoren, pilotalekuko gibelego paretean zegoen kortina jautsi zuten eta bertaratu zirenen harridurarako Ezkurra pilotalekua izena eta Kotetoren silueta agertu ziren (Ester Fernandez artista eta margolariak egingako lana da). Xanti Uterga, alkateak, Doneztebe herriaren izenean, Kotetoren profesionaletako ibilbidean egingako 25 urteak eskertu eta goraiatu zituen. Akitzeko, bertako batzuen elkarlanean prestatutako bideoa pantailaratu zen, erremontista honen bizitzari errepasoa eginez eta zoriontzeko agurrak bilduz, batzuk aipatze arren: Uxue Barkosena, Ixabel Elizalde kontseilariarena, adin guztietako erremontistak, herritarrak, familiakoak... Txalo eta malkoen artean zoriondu zuen herriak txapeldun handia. Koteto berak, mikrofonoa hartuta, omenaldia eskertu zien kantxan ziren guztiei, ondoren, lagunaren artean ospakizun ederra burutu zuen 80 laguneko afarian mahaiburu eta protagonista izanda. Eloy Garcia eta Julen Larretxea ere omenduak izan ziren gazte mailako GRAVNI txapelketa irabazi dutelako.

### FLASH

#### Udala sare sozialetan

Herritarrekiko hurbiltasuna areagotu nahian eta Herriko Etxearen jardueraren gardentasuna bultzatzeko asmotan udalak sare sozialetako presentzia indartu du. Facebooken: <http://m.facebook.com/doneztebekoudala>. Twitter: @doneztebeudala. Gmail: [doneztebekoudala@gmail.com](mailto:doneztebekoudala@gmail.com). Horretaz gain, udalak duen web orrian hobekuntzat egiten ari dira eraginkorrago eta dinamikoagoa egiteko. Epe motzean .eus dominiora ere aldatuko da.

#### Euskaltegiko matrikulazio kanpaina

Doneztebeko IKA euskaltegiko matrikulazio kanpaina urriaren 2an akituko da. Maila guztiak eta EGA edo C1 titulua eskuratzeko ikastaroak online edo klase presentzialen bidez eskaintzen ditu euskaltegiak. Interesatuak 948 45 15 55 telefonora deitzen ahal dute. Kanpaina girotzeko bideoa ere egin dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Uterga eta Etxeberria III Nafarroako txapeldun

Xanti Utergak eta Joxe Etxeberriak irabazi dute Nafarroako Foru Komunitatearen hamargarren erremonte txapelketa Urriza eta Patxi Olazarrek osatutako bikoteari irailaren 20an Zubiriko frontoian jokaturako finalean 40-39 irabazita. Argazkian finalistak ageri dira, antolatzaile, sari emaile eta Olazarren alabekin.



GIZARTEA → IRAILAREN 9AN AURKEZTU ZUTEN

# Gas naturala sartzen hasiko dira laister

Urriaren erdian hasi eta urte hondarrerako lanak akituko dituzte

## Arkaitz MINDEGIA

Urte hondarrerako gas naturala izateko aukera izanen dute herriko etxebizitzetan. Gas Navarra enpresako arduradunek eta herriko alkateak egin zuten egitasmoaren aurkezpena irailaren 9an Herriko Etxean, 60 bat ituren-darren aitzinean.

Mari Jose Bereau alkatearekin batera, Miquel Andreu Gas Navarrako zuzendaria eta Julio Laplana, enpresa horretako azpiegiturako ordezkaria izan ziren aurkezpenean. Horren arabera, Gas Na-

varrak 5 kilometroko hornidura-sarea egingen du gasa banatzeko. Lanak, urriaren bigarren hamabostaldian hasiko dituzte eta Iturengo profesionalak arituko omen dira. Datozen bi urteetan, herrian 120 hornidura-puntu baino gehiago ezartzea espero dute.

Bizilagunei gas naturalaren ezaugarriei, erabilerei eta abantailei buruzko azalpenak eman zizkieten. Horren arabera, ingurumena gehien errespetatzen duen erregai konbentzionala omen da gas naturala, eraginkorra eta ekonomikoa izateaz gain. Gaur egun, Nafarroako bizilagunen %90ak dauka gas naturalerako sarbidea, 124 herrian.



UTZITAKO ARGAZKIA

Alkatea eta Gas Navarrako ordezkariak, aurkezpenean azalpenak ematen.



ARGAZKIA: ITZIAR BAZTERRIKA

## Joaldunen Egunean giro bikaina

Joare soinuek eman zioten hasiera Joaldunen egunari. Goiz goizetik Ameztko baserrietan barna ibili ziren joaldunak, trikitilari eta bertsolariekin batera. Plazan herri kirolekin gozatu ondotik, bazkari batean bildu ziren Mikel Salaberri akordeoilaria, Julio Soto eta Jon Maia bertsolariekin eta herritarrekin. Giro ederean ibili ziren kantuan eta dantzan, goizeko ordu tikiak arte.

## Ba al zenekien

Irail erdialdeko haize bolada bortitzek Joaldunen Egunerako jarritako karpa airatu zutela.



**APARAN, S.A.**  
**BRIKOLAIA eta ZURAK**

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**Manterola**  
Tekniko instalatzailea

**ITURGINTZA · GASA  
KALEFAKZIOA**

Zerbitzu anitzak &  
Gremioen koordinazioa

**629 449 602**

**ORBELA**  
SERBISADURA

**BEINTZAKO OSTATUA**

Idoia · Mikel  
Tel. 948 450 014  
BEINTZA-LABAIEN  
orbela@alberguesnavarra.com  
www.orbela-beintza.com

**Bidasoa**  
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA

**24 ORDUZ**

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693



## ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 10EAN IZANEN DA

# Euskararen Eguna ekintzaz gainezka dator

Gazteek festa egun polita prestatu dute aurtengoan ere

### Fermin ETXEKOLONEA

Azken urteetako ohi-turari eutsiz Euskararen Eguna antolatu dute gazteek. Urriaren 10en izanen da egun handia, baina bezperatik beste zenbait ekintza interes-garri plantatu dituzte.

### OSTIRALA, URRIAK 9

- 18:30etan pintxo lehia-keta.
- 20:00etan hitzaldia Andres Iñigorekin estalpean.
- 22:00etan mus txapelketa Errandonean.

### LARUNBATA, URRIAK 10

- 10:00etan hasi eta goiz

guztian zehar artisauak herriko plaza inguruan. Gazta eta urdaiazpikoaren postua jarriko dira jendeak apostu egin dezan.

- 10:30ean trikitilari eta panderojoleek herrian buelta emanen dute.
- 11:00etan joaldunak. Ondoren joaldun zaharrei omenaldia.
- 12:00etan herriko dantzariak: Muxikoak.
- 14:00etan herri bazkaria bertsolariekin. Ondoren herri buelta.
- 16:00etan haur krosa.
- 18:00etan Miki eta Moko pailazoak.
- 19:30ean gazta eta urdaiazpikoaren zozketa.
- 20:00etan TXAMUKOS Mariatxiak.
- 00:00etan Gaupasa FAN&GO taldearekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Pentako Aliko Juanikorena eta Carmenen bisita

Aliko Juanikorenaren eta Carmen bere emaztearen bisita jaso dugu irailean. Bere familiaren eta lagunaren ondoan berriro gozatu dute lur honetaz, bere jendeaz, gastronomiaz eta berak hainbeste maite duen mus jokoaz. Aliko Pentako etxean, 1937ko martxoan jaio zen. Zortzi anai-arrebetan bigarrena izan zen; haurtzaroa bukatu eta lanean hasi zen familiari laguntzeko. Ikatzka egiten ibili ondoren, egurra ateratzen ibili zen Euskal Herriko mendi askotan; neguko hilabete gogorrek eta soldadutza Iruñean betetzeko deiak soilik eten zuten bere lana. 1963ko abenduaren 26an Estatu Batuetara lan hobe baten bila joan zen Wyomingeko eta Coloradoko mugako lurrara, Cheyenne hiritik hurbil. Haizea, elurra eta -20 °Cko hotza topatu zituen. Ardiak eta bazkak izan zituen lagun hurrengo hiru urteetan, eta zerrakuz eta arrantxoetako mantenuaz arduratzera pasatu zen gero. Urte batzuk beranduago eraikuntza-enpresa batek kontratatu zuen Coloradon eta Carmen bere emaztea ezagutu zuen Greeley-en, Denveretik 100 kmra dagoen hiri txikian. David bere seme bakarra, Tisarekin ezkondua, han jaio zen, baita bere bilobak Isaiah eta Isabella ere. Greeley-en bizi dira Aliko eta Carmen. Laister arte Aliko, Carmen, David, Tisa, Isaiah & Isabella.

### Malerreka Kantuz larunbatean

Malerreka kantuz urriaren 3an, larunbate-

an egingen dute Zubietan. 12:00 inguruan plaza gelditu eta herrian itzulia eman ondotik, ha-

maiketakoa egingen dute Lurdes Elizalderen taloak dastatuz, udalaren kontura.

## ELGORRIAGA

OSPAKIZUNAK → KOFRADE BERRIAK IZENDATUZ

# Onddo eta Zizen Eguna igandean ospatuko dute

### TTIPI-TTAPA

Aurten hogeita bigarren edizioa beteko du Nafarroako Onddo eta Zizen Eguna haundiak, Elgorriagako Kofradiak antolatua. Urriaren 4an, Elgorriagara etortzen direnek onddo eta ber-

tzelako produktuak dastatzeko aukera paregabea izanen dute.

Igande goizeko 9:30ean ibilaldia egingen dute kofradiako kide beriek Ezkurra errearen bidean barna. 10:00etan meza ospatuko da,

Abesbatzak kantatua. Ondotik kofrade berrien izendapena egingen da. 11:00etan Zubietako joaldunak eta Doneztebeko Bearzana txarangakoak karrizak karriz ibiliko dira. Eguerdian, ohiko kaxuela le-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aurten ere onddoak dastatzeko aukera izanen da.

hiaketa egingen dute frontoian. Leku berean artisau produktuen das-

taketa egingen da, baita onddoen zozketa eta tonbola ere.



OSPAKIZUNAK → HAINBAT EKITALDI EGIN ZITUZTEN

## Giro sanoa eta ederra izan zen herriko festetan

Tortilla eta paella dastaketan lortutako dirua Enaitz laguntzeko izango da

### TTIPI-TTAPA

Aurtengo pestatan ekitaldi asko eta desberdinak izan zituzten Eratsunen: Lesakako Elutxa txaranga, Caza huates mariatxia, pilota partiduak eta jotak besteak beste. Goizez eta arratsaldeaz jende asko ibili zen herrian. Haurrek ere izan zuten ongi pasatzeko aukera ugari: puzgarriak, egurrezko jolasak, bazkaria eta Ines Bengoaren

ahotik entzundako ipuinak.

Lehiaketan egindako tortillak eta Paella dastatzera ere herriko jende asko hurbildu zen, eta eskertzekoa da bertan ateratako dirua Enaitz Iparragirri laguntzeko izango baita. Aipatzekoa da Eratsungo ume koadrila batek eskuz egindako bitxikeriak saldu zituztela helburu berarekin. Zortzi tortilla aurkeztu ziren lehiaketara eta Oskar Urrutia eta Klaudio Regi izan ziren irabazle.

Mus txapelketan, berriz, hamabi bikote aritu ziren. Juanito Estanga eta Antonio Tellexea suertatu ziren txapel-dun (bildotsa eta ardoa izan zituzten saritzat) eta Carmen Des-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Ekitaldi bereziak eta jendetsuak izan dituzte aurten Eratsungo festetan.

karga eta Patxi Mariezkurrena azpitxapel-dun (txuleta eta ardoa).

Udaletxearen izenean eskerrak eman nahi dizkiete eratsundar eta

hurbildu ziren guztiei pestetan parte hartzeagatik.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**ESKAINZA: mantak**

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634



## EZKURRA

GIZARTEA → HAUR KOPURUA HANDITUZ DOA

# Eskola berriz irekitzeko aukera egon daiteke

Eraikinaren teilatua konpondu eta fatxada txukundu du Udalak

**Fernando ETXEBERRIA**

Irail hasieran, herriko 8 haur Leitzako eskolan hasi ziren. Haur kopurua handituz doa eta 1999an ikasle faltagatik itxitako herriko eskola irekitzeko aukera

egon daiteke. Udalak garai batean eskola izandako eraikinaren teilatua konpondu eta fatxada txukundu du. Orain barrualdea egokitzea falta da. Aurrealdean autoak uzteko eta zaborra jasotzeko erabiltzen den plaza bat dago, jolasgarairako aprobetxa daitekeena. Garai batean 102 ikaslek ikasten zuten bertan.

### Ehizarako prest

Usoak ehizatze eskopetak prestatzen



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

### Juantorena familiaren bilera

Juantorena familiako 50 kide bildu ziren aurtengoan ere Barranka ostatuan. Abuztuan hildako Maria Jesus oroitzapen bereziz ekarri zuten gogora, bilera guztietara joaten zena. Herri ezberdinetako familiak elkartu ziren; Ezkurra, Eratsun, Leitza, Ezkio-Itsaso eta Beasaingoak. Duela urte batzuk Caceresen bizi den familiar bat ere agertu zen.

ari dira ehiztariak. Batzuk aurreratu eta hainbat basurde harrapatu dituzte dagoeneko. Udaletxeak eta ehiztari talde batek sarbideak txukundu ditu auzolanean, ekaitz indartsuen ondorioz hondatuta zeuden zola eta bide

bazterrak konponduz batez ere.

### Bisitari andana

Uda honetako balorazioa positiboa izan da herriko ostatueta; Barranka ostatua, Matxitulo aterpea eta lan-

detxe ezberdinetan. Katalunia eta Valentziako betiko bisitariez gain, Andaluzia eta Madrilera jendea ere gerturatu da aurtengoan. Europako atzeritarrak ez ezik, Amerika eta Asiatara ere izan dira uda honetan Ezkurran.

## DONAMARIA

GIZARTEA → NATURA EMANKORRA

# Onddo ederrak Artze auzoko Mingotxera

Irail erditsuan kolpe polita atera da

**TTIPI-TTAPA**

Uda hondarra emanorra izan da inguruko mendietan eta onddo kolpe polita eman zuen irailaren erditsuan. Galdetu bertzela Artze au-

zoko Mingotxeko Xabier Petrirenari eta ikusi zeinen ederrak bildu zituena. Nagore eta Olaia alabek hortxe dituzte esku artean hartuak, hau pentsatuz: «A ze nolako onddoan harrapatu duen gure aitak!! Zorionak!! Eta bazkari goxo goxo baten zain gelditzen gara e?».



Nagore eta Olaia Petrirena, aitak bildutako onddoekin kontent.

ARGAZKIA: IZASKUN GOÑI



ARKUPEAK → ERRETIRATU TALDEAK

# Azken hiru hileko ikastaroak prest ditu

638 lagun espero dituzte Gorraitzen Bazkidearen Egunean

**Fernando ETXEBERRIA**

Irailaren 11an bilkura egin zuen zuzendaritza batzordeak eta interes orokorreko gaiak landu ziren, baita balorazio eta informazio berria plazaratu ere. Lehenengo sei hilekoan 10 ikastaro egin dira eta azkeneko hiruhilekorako antolatuta daudenetatik, gutxienezko partaidetzara iristen direnak aterako dira aurrera. Hurrengo hitzaldia konpainia elektrikoen ingurukoa izanen da.

Urritik aurrera ikastaro ezberdinak izanen dira: inausketa Donezteben; lorezaintza Leitza; dantza luzaketak Doneztebe; yoga Leiza, Urdaubi eta Elizondon; frantsesa Beran; proiektu digitalak Leitza eta Donezteben eta marrazketa Donezteben.

## Bidaiak

Iraila bitarte egindako bidaietan 1.854 bazkidek hartu dute parte. Kroaziara bi taldetan zatituta 92 pertsona joan ziren eta irailaren 14ean Lezo eta Hondarribiara 147. Lezoko me-

zaren ostean, Herri Kirolak ikusi eta ondoren Hondarribian dagoen Ardora jatetxean bazkaltzeko aukera izan zen. Jose Angelek giro-tutako dantzaldian gozatu zuten askok eta bertze batzuk musean jokatzeko aritu ziren.

Irailaren 19an 28 mendizalek Eratsunetik hasi eta Otsolaraino donan ibilbidea egin zuten. Bertan piramide itxurako iturri bat dago, nahiz eta idorteagatik ez zuen urik. Paraje zoragarri hau hamaiketako egiteko aprobetxatu eta Eratsunera bertze bide batetik itzuli ziren. Bazkalostean, hurrengo urteko apirillean Dantxari-nean ospatuko den eta buletinean hobekiago azalduko den euskal kantuaren egunerako entseguak egin zen. Gertakizun polit bat suertatu zen: 47 urteren ondoren, soldadutzako bi kidek topo egin zuten eta Tolare tenorarekin musika emanaldi zoragarriak gozatu zuten.

Urtea amaitu baino lehen bidai gutxi geratzen dira; urriaren 15ean 20 bazkide joan dira Tarazona eta Tuterara, Gernikara 207 eta bazkidearen egunean Gorraitzera, 638.

Bernidormeko hotelen prezioa asko igo dela ikusita, hiru bidai agentzian eskaintzak eskatu eta oso emaitza



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA  
Goitik beheiti, Arkupeak elkarteko kideak Kroazian, Lezo eta Eratsunen, Otsololarainoko bidean.

onak jaso dira, guztiek aurrerago aipatuko diren beherapenak eskaini dituzte eta.

Gabonetako loteria prest dago. 2016ko bidaiak, ikastaro eta hitzaldien egutegia, berriz, prestatzen ari da. Guzti hau hurrengo buletinean argitaratuko da.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

## Gazteluko zuloaz solasaldia

158 lagun bildu ziren irailaren 22an Doneztebeko zineman, Gazteluko Sagardia familiaren desagerketaz eta heriotzaz *La sima* liburua idatzi duen Jose Mari Esparzak emandako solasaldia aditzera.



# ARESO

DEIALDIA → URRIAREN 5EAN

## Herri-aprobetxamenduko egur lote bat enkantean aterako du udalak

Hasierako prezioa 125 eurotan finkatu dute

**Juana Mari SAIZAR**

2015 urteko festetan aizkora apustuan erabiliko egurra eta Perralekuko teilatuko konponketaren ondorioz gapirio eta txapekin sortutakoa, lote batean bildu eta enkantean aterako du Udalak. Urriaren 5ean, Udaletxeko Batzar Aretoan egingo da lehenbiziko enkatea 14:00etan. Enkatea egin

ondotik, udaletxeko taulan iragarki bat jarriko da. Bertan behin-behineko esleidunaren izena eta prezio errematea agertuko dira. Enkantean zehaztutako kopurua sesteatzeko eskubidea egongo da. Intereza dutenek urriaren 9ko eguerdiko 2ak arteko epea dute.

Sesteoa eginez gero, bigarren enkante bat egingo litzateke, ahoz, urriaren 16an eguerdiko 2etan udaletxean. Ez balitz sesteorik egingo, behin-behineko esleipena behin betikotzat emango da.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

### Giro bikaina kinto bazkarian

Irailaren 19an, 1959 eta 1964 urte artean jaiotakoek bazkaria egin zuten Pake Toki Elkartearen. 23 pertsona elkartu ziren, herrian bertan bizi direnak eta baita Areson jaio eta kanpoan bizi direnak ere. Urriaren 17an 1955 eta 1958 artean jaiotako kintoen txanda izango da.

# ARANO

HITZORDUA → 17:00ETAN

## Konpostagailuak banatzeko bilera urriaren 2an

Konpostagailuak eskatzeko aukera ere izango da bertan

**Ainhoa ANSA**

Konpostatzearen aldeko apustua egin du Mendiialdea Mankomunitateak eta etxez etxe egin zuten kanpainan aranoarrek oso erantzuna eman zuten. Asko

izan ziren konpostagailua eskatu zutenak eta orain, urriaren 2an banatzeko zaizkie konpostagailuak. Egun berean, ikastaro txiki bat ere jasoko dute, konposta nola egin erraz azalduz.

Bilera irekia dela azaldu du Mendiialdea Mankomunitateak eta hortaz, gaien interesa edukiko edota konpostagailua eskatu nahiko lukeenak bertara agertzerantz animatu nahi dituzte.



ARGAZKIA: ZIRABA PROIEKTUA

### Urumea erreka ezagutzuz, bosgarren herrigintza eskolan

Irailaren 19an, Ziraba proiektuko kidea eta Aranzadiko ikerlaria den Iñaki Sanz-Azkuek etxeko txikienei zuzenduriko hitzaldi dibulgatiboa eman zuen Aranoko Mendaratzen. Aparteko eguraldiak lagunduta, Iñakiren argazkiekin osaturiko erakusketa izan zuten ikusgai Aranoko ume eta gurasoek. 14 argazkiz osaturiko bilduma Mendaratzeko arboletatik zintzilikatu zuten, Urumea erreka albo batean zutela, paraje ezin ederragoan. Aranzadiko ikerlariak gidatuta, umeek ibilbide txiki bat osatu zuten argazkiak ikusi eta hauei buruzko azalpenak entzunaz. Eguna hamaiketako ederrarekin hasi eta bazkari bikainarekin bukatu zuten. Giro aparta eta konpainia bikaina Urumeako naturaren altxor txikiez gozatu eta ikasteko! Hurrengo herrigintza saioan, urriaren 3an, izarrei begira jarriko gaituzte Aranzadiko astronomia sailekoek.



GIZARTEA → URRIAREN 6AN HASIKO DIRA ENTSAIOETAN

# Helduen dantza talderako mutilak eskatu dituzte



Asteartero eginen ditu entsaioak Umore Ona helduen dantza taldeak

## TTIPI-TTAPA

Ez da Goizuetako arazoa bakarrik, baina herrian ere nabarmena da, herriko festetan aterazen goiko argazki horretan ageri denez. Behin adin batera ailegatu, dantza taldea uzten dute mutikoek eta horrek hankamotx uzten du taldea. Hortaz, urriaren 6an hasiko dituzten entsaioetarako deialdi berezia egin du Umore Ona helduen dantza taldeak: mutilak apuntatzea, alegia. Beraz, animatu eta hasi dantzan!

Ordu eta erdiko entsaioak, asteartetan 16:50etik 18:20era eginen dituzte.

Dantzetan ez ezik, urri hasieratik bestelako ikastaroetan ere hasteak dira herriko haurrak eta hain haurrak ez direnak ere.

## Denboraldi bukaera Iskibin

Ohiturari eutsiz, Euskal Jaiarekin itxi dute denboraldia Iskibi kanporean iraileko azken igandean. Zortzigarren edizio honetan ere herri kirolak, talo jatea, toka txapelketa eta triki-lariak izan dituzte.





## LEITZA

OSPAKIZUNA → BEDERATZIGARREN URTEZ

# Aurrera eguna urriaren 3an ospatuko da

Bazkaria, futbol eta pilota partiduak, dantzak...

JM BARRIOLA

Aurrera Elkarteak urte asko daramatza herrian kirol jarduerak eta pestak antolatzen. Auzolana izan dute beti oinarri eta herriko eragile bakarra izan zen urte askoan. Orain, herriko beste eragileekin elkarlanean aritzen dira herriari bizia ematen dioten ekimenak antolatzen. Duela bederatzigarren urte hasi ziren Aurrera Eguna ospatzen eta aurten, urriaren 3an izanen dute festa. Goizeko 9etan diana joko dute txistulariek eta ordu berean, BTT Taldeak gidatutako bizikleta marxa ere abiatuko da plazatik. 10:00etan Kirol Jokoen eskutik futbito partidua izanen da plazan. 11:00etan 10 ur-

tetik gorako gaztetxoek bizikleta irteera egiteko aukera izanen dute plazatik abiatuta BTT Taldekoekin. 11:00etatik 13:00etara rokodromoa eta zaldi ibiltariak antolatu dituzte gazteentzat. 11:00etan Aurrerako pilotarien partiduak izanen dira plazan. 12:00etan Aurrerako dantzarien saioa eta 13:00etan Inkansables txarangarekin poteoa izanen da herriko. 14:30ean Aurrerako bazkideen bazkaria izanen da karrapean. Ondoren ingurutxo dantzatuko dute eta gero Inkansables txarangaren erronda eginen da buruhandiek. Arratsaldean futbol partidua jokatuko du Aurrerak Beticasedanoiren aurka Arkixkil zelaian.

Eguna bukatzeko, 21:30ean luntxa izanen da Aurreran eta gero Joxe Mendizabalen emanaldia.



## Ba al zenekien

93 lagunek parte hartu zutela irailaren 11n egin zen Ur Festan. Gozamenegiz programaren baitan, eskualdeko Gizarte Zerbitzuek, Leitzako Kiroldegiak eta Andraizko Emakume Zerbitzuak antolatu dute besta azken 9 urteotan.

## FLASH

### Zine-denboraldia urriaren 2an hasiko da

Ari Folmanen *El Congreso* pelikularekin emanen zaio hasiera zine-denboraldiari. Ostiraletan 22:30ean eta igandetan 19:30ean izanen dira emanaldiak. *El Congreso* urriaren 2 eta 4an egonen da ikusgai eta urriaren 9 eta 11n *The Grandmaster*, Wong Kar Wairen filma. Agenda atalean izanen duzue aurrerantzean saioen berri.



ARGAZKIAK: JM BARRIOLA

## Talo eguna eta Plazaolako Maratoi Erdia, batuketa bikaina

Eguraldi ederrarekin, jendetza bildu zen Udalak eta Plazaola Turismo Partzuegoak antolatutako talo egunean. Plazak itxura ederra hartu zuen: artoaren inguruko erakusketak, baserriko tresna zaharrak eta animaliak ikusteko aukera izan zen eta umek behorrek tiratutako gurdi gainean ibiltzeko aukera ere izan zuten. Saralegi eta Villabona familiak taloak egin eta egin pasa zuten eguna eta Imotzetik etorritako lagun batzuk ere, buztinez egindako labean jatekoak prestatzen aritu ziren. Inguruko artisauek euren postuak jarri zituzten, denera 23. Taloarekin egindako plater bereziak ere plazaratu zituzten Txoko, Musunzar, Iruso, Beatrizenea eta Xarmart ostatuek. Talo lehiaketan 9 pertsonak parte hartu zuten eta irabazlea Maite Sagastibeltza, leitzarra izan zen. Herri kirolen saioa ere izan zen. Eneko Saralegi aizkoran, Jon Lapazaran 45 kiloko fardoa altxatzen eta Joseba Sánchez 700 kiloko harriari tiraka aritu ziren. Arratsaldean ere izan zen taloak dastatzeko aukera. Ortzadar dantza taldekoek musika eta dantza tailerra eskaini zuten plazan eta Torrea Libre dinamikaren baitan Torrean bertan bertso saio bikaina izan zen. Taloetz gain, kirolak ere garrantzia izan zuen irailaren 20an Leitzako plazan bukatu zelako Plazaolako Maratoi Erdia. 155 lasterkariak parte hartu zuten eta 139 klasifikatu ziren. Ikusle asko bildu ziren herriko plazan jarritako helmugan. Bete-luko Xabier Satrustegi eta Miriam Malón iruindarra izan ziren irabazleak.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

## Pontevedratik konposta-plangintza ezagutzera etorri dira diputazioko eta udaletako hainbat ordezkari

NUPk antolatutako jardunaldi batzuetan eskualdeko hondakin organikoak kudeatzeko ereduaren berri izan eta denbora gutxian lortutako emaitzek atentzioa emanda, irailaren 9an, Leitzara gerturatu ziren Pontevedrako hainbat ordezkari. Arantxa Iparragirre alkate-ohiak, Markel Azkargorta zinegotziak eta Joseba Sanchez Vermicam enpresako teknikariak lagunduta, Leitzako hainbat auzo-konposta gunea eta hondakin begetalaren gunea bisitatu zituzten eta biohondakina kudeatzeko sistema honen berri jaso zuten lehen eskutik.



**BESTAK → URRIAREN 3TIK 5ERA**

# Sei musean txapelketa egingen dute lehen aldiz Anizko bestetan

Igandean bertako produktuekin egindako luntxa eta magoa izanen dituzte

## TTIPI-TTAPA

Hiru egunez ospatuko dituzte Anizen antolatutako Arrosarioko Amabirjinaren bestak, larunbatetik astelehenera. Bitxikeri moduan, lehen aldiz hiru hiruren kontrako mus txapelketa jokatu dute, zortzi erregetara, baina bertze hainbat ekitaldi ere prest dituzte.

## LARUNBATA, URRIAK 3

- 11:00etan ezkil jotzea, eta altxaferoak herri-

ko trikitalariekin alaiturik.

- 11:30etan Herri-krosa: haurren eta helduendako ibilbide desberdinak.
- 12:00etan Puzgarriak.
- 14:00etan Paella, pastel eta bizkotxo lehiaketa. Bazkaria.
- Ondotik Musa: Baztango I. sei musean txapelketa.
- 15:30ean Puzgarriak.
- 17:00etan Tiroлина.
- 18:00etan Txokolate jatea.
- 20:00etan Mutildantzak eta gaita.
- 21:00etan Baztan Zopak.
- 00:30ean SALABERRIekin dantzaldia.
- Akitzeko Xingar jatea.

## IGANDEA, URRIAK 4

- 12:00etan Meza Nagusia.



Tiroлина, haurren krosa, suaren inguruan kantuan eta mutildantzak, gan den urteko bestetan.

UTZITAKO ARGAZKIAK

## GAN-TORRI AUTOBUSA

Larunbat arratsean eta goizaldean gan-torri autobusa ibiliko da herriz herri.

- 13:00etan Otordua: bertako produktuekin eginga. Argazki erakusketa lehiaketarat aurkeztu diren argazkiez osatua.
- 18:00etan Imanol Ituiño magoaren ikuskizuna.
- Ondotik HAUSPOLARIEK taldearekin dantzaldia.
- Akabailan Afaria Mendiarre Kultur elkarte-an.

## ASTELEHENA, URRIAK 5

- 11:00etan Mus Txapelketa.
- 12:00etan Buruhandiak herrian barna ibiliko dira.
- Ondotik Haurrek egingako marrazkien erakusketa.
- 14:00etan zikiro jatea, Joxe Angel akordeoi-lariak alaiturik.
- 17:00etan III. Boneta jaurtiketa.
- 21:00etan Joxe Angel akordeoilariarekin dantzaldia.
- Ondotik Xingar jatea eta suaren inguruan kantaldia.
- Akitzeko Gaizoa ni eta herriari itzulia.

## ERRATZUN

Uberroak prebenitzeko ur-emaria neurtzeko estazioa

## TTIPI-TTAPA

Erratzun uren ur-emaria neurtzeko estazio berria egiten hasi da Nafarroako uren zerbitzua Baztango udalarekin elkarlanean. Aforoguneak uren kaudala neurtzeko balioko du eta uberroak prebenitu ahal izateko baliagarria izanen da.

Aipatu estazioa herriko zubitik 20 metrorat ugaldetan behera egonen da. Modu berean Baztango udal-larrialdi plana egiteko lanean ari da. Momentu honetan eredu desberdinak aztertzen ari da, planaren ezagueriak eta edukiak behar bezala zehaztu ahal izateko eta ondotik, hala egin dadin eman ahal izateko.



**ORAIN FANTXIKEN EHIZARAKO ARROPETAN AUKERA ZABALA: GALTZAK, ZAMARRAK, TXALEKOAK... ETORRI IKUSTERA!!**

Jaime Urrutia, 15 · ELIZONDO · 948 580 312



# BAZTAN

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 12AN

## Basaburuko Eguna ospatu dute lehen aldiz Berroetan

Herri kirol taldeak 25 urte bete dituela eta egin dute estreinekoz eta bi urtetarik egiteko asmoa azaldu dute

txapelketa. Bertan 16 bikotek parte hartu zuten, eta txapeldunak Anizko Aitor Azkarate eta Iñaki lantzi izan ziren. Bazkal aitzinean herri kirolak izan ziren. Ondotik zikro jatea izan zuten, eta bertan Almandoz, Berroeta, Aniz eta Zigako jendea elkartu zen mahai inguruan, 148 lagun.

Bazkalondoa Anizko Andoni Irigoieni herri kirolen alde egin duen lan guztia eskertu zitzaion, eta oroigarri bat eman. Akabailan dantzaldia izan zuten Auspolariek taldearekin.

Giro ezin hobean joan zen eguna. Balorazioa aski positiboa egin

### TTIPI-TTAPA

Baztango Basaburuko eguna ospatu zuten lehenbiziko aldiz irailaren 12an. Basaburua herri kirol taldeak 25 urte bete zituela eta, egun guztiko besta izan zuten Berroetan.

Goizean mendi itzulia izan zen, 11etan mus



MAITANE MARITORENAK UTZITAKO ARGAZKIAK

Herri kirola, musa eta nola ez, mahai inguruko giroa izan zen Basaburuko lehen Egunean.

zuten, eta Basaburuko Eguna bi urtetarik behin egiteko asmoa da-goela adierazi duten.

### Bizikletaldia

Herrian autoa beharrean bertze mugitu eta ibiltzeko moduak bulkatzeko Bizikletaldia egin zen Elizondon. Horren haritik, aurtengo ikasturtean astezkenak eskoletarat autorik gabe joateko egun bezala landuko dituzte.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

### Errotaren Eguna Amaiurkoan

Amaiurkoan ospatu da aurten Errotaren Eguna. Errotako tresnen inguruko erakusketa egin zen eta errotazainek gogotik egin behar izan zuten lana bixitariak taloekin asetzeko eta azalpenak ematen.

### IRAIL HASIERAKO EURITEEK HONDATU ZUTEN

Almandozko Artezelai inguruko bidea berriz ere ireki dute

### TTIPI-TTAPA

Almandozeko Artezelai parajearen ondoan, irailaren hasierako erauntsiek errepideko parrilla bete eta gainezka eginarazirik errepidea harriz bete eta handik ibiltzea ezinezkoa egin zuten. Baztango udalak, parrilla eta errepidea garbitu eta xangeriak eta kunetak ireki ditu. Modu berean, pausu kanadiarreko parrillaren ondoan, aziendak pasatzeko balenago paratu du.

Bertzalde, azkeneko asteetan Gartzainen Gas Naturala sartzeko lanak egin dituzte. Ondotik, Ariztegi auzorat eramateko lanak egiten dira. Baztango udalak Gas Naturaleko arduradunekin bilera eskatu du Baztango alderat gas naturala eramateko eskaera egiteko. Lehendabiziko fase batean Arizkun, Ordoki eta Erratzu aldera eta, ondotik, Amaiur eta Azpilkuetarat.

### HANDIENAK ARRAIOZKOAN EGIN DITUZTE

Hainbat mantenimendu lan egin ditu Balleko Etxeak bere ardurapeko eskoletan

### TTIPI-TTAPA

Ikasturtea hasterako Baztango udalak bere ardurapeko eskola eraikinetan hainbat mantenimendu lan egin ditu. Lanik aipagarriena Arraiozko eskolakoa izan da, goitiko eta beheitiko komunak berritu baitira eta beheitiko solairuan parke flotantea paratu eta dena margotu da. Arraiozko lanek dena 11.584 euroko kostua izan dute.

Gainerakoan Gartzango eskolako galdara konpondu da eta gas naturala aipatu ikastetxerat eta Elizondoko eskolarat eraman da. Elizondoko eskolan euria egiten zuelarik

jolastokia putzutzen zuen hodian zegoen arazoa zein zen harpatu ahal izan da eta konpondu ere bai. Horrek, printzipioz, jolastokia orain arto bezala putzutzea saihestu beharko luke.

Bertze eskoletan ohiko mantenimendu lanak egin dira. Lan hauek udaletxeko mantenimenduko langileek eta enplegu sozialeko langileek egin dituzte. Betiere, aurtengo udan Irurita-Lekaroz eta Amaiurko ur-biltegiekin izandako arazoek, eskoletako lanak egiteko denbora kendu dute eta, horrek justu samar ibiltzea ekarri du.



**BESTAK** → URRIAREN 9TIK 12RA

## Meza ez ezik Mariatxiak izanen dituzte Gartzainen Pilarika egunean

Gazte eta haurren bazkariak larunbatean eta zikiro jatea igandean

### TTIPI-TTAPA

Lau egunez ospatuko dituzte Gartzainen Pilarika bestak. Egun handia astelehenarekin suertatzen denez, ortziraletik astelehenera asteburu indartsua izanen dute.

### ORTZIRALA, URRIAK 9 BEZPERA

- 16:00etan Txupinazoa eta ezkil jotzea, segidan herri kalejira herriko musikariekin.
- 16:30ean Mus Zimiste.

- 21:30ean Baztan Zopak trinketea.
- 00:00etan Dantzaldia OHARKABE taldearekin.
- 06:00etan Zinger jatea.

### LARUNBATA, URRIAK 10 HAUR ETA GAZTE EGUNE

- 11:00etan Haur jokoa.
- 12:00etan Dianak eta argi soinuak herriko musikariekin.
- 14:00etan Gazte bazkaria Frantsenen eta haurren herriko plazan.
- 16:00etan Haur jokoa.
- 18:00etan Txokolata.
- 18:00etan Gazte jokuak.
- 22:00etan Herri afaria frontonian eta dantzaldia MIKEL SALA-



### TXARTELAK

Baztan zopetako eta zikiroko txartelak Saioa eta Frantsenen egonen dira salgai urriaren 3a bitarte. Txartelak ez dira dataz kanpo ezta telefonoz salduko.

### BERRIekin.

- Ondotik gaupasa Zulo beltzen.
- 06:00etan Kantzontzilo eta kuleru lasterketa.

### IGANDEA, URRIAK 11 HERRITARREN EGUNE

- 10:30ean Dianak eta argi soinuak herriko musikariekin.
- 11:00etan Herritarren arteko desafioa.
- 12:30ean Meza nagusia.
- 14:00etan Zikirojatea. Ondotik boletuen zozketa eta trofeo banaketa. Segidan dan-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Gazte eta haurrek ederki pasatuko dituzte Pilarika bestak.

- tzaldia MIKEL SALABERRIekin.
- 22:30ean Afaria eta ondotik gaupasa MIKEL SALABERRIekin.
- 06:00etan Salto lehia-keta.

### ASTELEHENA, URRIAK 12 PILARIKA EGUNE

- 10:30ean Dianak eta

- argi soinuak herriko musikariekin.
- 12:00etan Meza Aizteiko Pilarika ermitan, herriko txistulariekin eta ondotik luntxa.
- 19:00etan LOS TAJUDOS DEL NORTE mariatxien emanaldia.
- 00:00etan Gaixoa ni eta besten akabaila.

 **arteka 20<sup>th</sup>**  
arkitektura eta zerbitzuak



[www.artekabaztan.com](http://www.artekabaztan.com)

Balda medikua plaza 1- 1A 31700 Elizondo. Nafarroa 948 580 610



# BAZTAN

GIZARTEA → NAFARROA OINEZEN BAITAN

## Oinez Erronkak berrikuntzak izanen ditu Elizondon

Nafarroako 12 ikastolako gazteek proba ezberdinak egingen dituzte

### TTIPI-TTAPA

Nafarroa Oinezek Erronka 2015 gazteei zuzendutako ekimena aurkeztu du. Erronka Ikastolen Elkarteak sortutako gazteendako herrialdekako lehiaketa bat da. Helburua, Nafarroa Oinez egunean ez ezik, Hego Euskal Herriko ikastolen bertze bes-tetan ere 14 eta 16 urte arteko gazteen esku-hartze aktiboa zein euren arteko lehiaketa osasuntsua bultzatzea da.

Erronkaren bigarren edizioa egingen da Elizondoko Nafarroa Oinez, urriaren 18an. Nafarroako 12 ikastolako gazteek hartuko

dute parte Erronkan. Talde bakoitzak 8 kide izanen ditu, 4 neska eta 4 mutiko, eta bi kapitain: taldeko partaide bat eta ikastolako irakasle bat. Taldeen osaketan bezala, hemen ere genero berdintasunaren alde egin da; ondorioz, kapitaintza emakume batek eta gizon batek konpartitu beharko dute.

Taldeek Erronkan gainditu beharko dituzten probek ikasleen abilezia, indarra eta abiadura neurtuko dituzte, eta bertetik, buruargitasuna, jakintza orokorra eta euskaltzaletasuna. Probak Nafarroa Oinez egunerako egokituko diren lau guneetan gauzatuko dira eta bestan parte hartzen dutenendako ikusgai izanen dira. Lehiaketaren finalak Txokoton abiatu eta Elizondoko Merkatzelaian izanen du akabera.

Talde txapeldunak,



UTZITAKO ARGAZKIA

### Nafarroako Gobernua ere Nafarroa Oinezekin bat

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek eta Hezkuntzako kontseilari José Luis Mendozak Ikastolen Federazioko ordezkaritza bat hartu zuten irailaren 15ean, eta ordezkari horiek datorren Nafarroa Oinez 35. ediziorako gonbidapenak eman dizkiete. Baztan ikastolak antolatutako besta urriaren 18an egingen da, Elizondon. Nafarroako Ikastolen Federazioaren aldetik honako hauek izan ziren: federazioko lehendakari Pello Irujo; Baztan ikastolako lehendakari Elena Zabaleta eta zuzendari Iosune Ortega eta federazioko kide Josu Reparaz.

Euskaltel-en babesle-tzari esker 1.000 euro eta 12 tablet eskuratu-ko ditu, bigarren suertatzen den taldeak 600 euro eta hirugarrenak 400 euro. Dirua ikas bidaiara bideratuko da.

### BERRIKUNTZAK

Bi berrikuntza nagusi ditu aurtengo edizioak. Batetik, Juanito Gorriti eskultoreak sortu duen *Erronkalekukoa*, irabazleendako saria izanen dena. Eskultura haritz eta hagin egurrez egina da. Artelanak Euskal Herriko baserri-rik za-

harrenean du jatorria, 1450. urtean Oñatin zegoen baserri bateko pieza baita. Baserriak su hartu zuen, baina egur hori ez zen erre. Gainera, duela 2000 urte baino gehiago ereindako ezkur batetik sortua da. Lekuko hau urtetik urtera Ikastolaz ikastola pasatuko da. Aurtengoa irabazten duen taldeak lekukoa bere ikastolara eramane du, eta bertan izanen du 2016ko Nafarroa Oinezeko Erronkan bertze talderen batek eskuratu artio.

Bigarren berrikuntza

Erronkaren baitan antolatutako Rural Kutxa Bideo Lehiaketa da. Ikastola bakoitzak bere taldea aurkezteko bideo bat grabatu du eta irail hondarrean bideo hauek *online* bozkatzeko aukera izanen da [www.erronka.eus](http://www.erronka.eus) web-gunean. Puntu gehien lortzen dituzten 3 bideoen egileek Oinez egunean saria eskuratu dute. Erronka 2015eko lehen proba izan da bideoa sortzea eta talde bakoitzari *ranking* orokorre-rako hasmentako puntuazioa eman dio.

kokette  
Santiago, 22  
ELIZONDO

948 452 601 •

Mármoles  
**SOULE**  
HILETA ARTEA

T. 948 453 444 | M. 688 605 182  
ARIZKUN

MENDIALDE  
Jatetxea

T. 948 453 060 · AMAIUR  
[www.mendialdea.com](http://www.mendialdea.com)

MENDI  
ostatua

Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO



GIZARTEA → IRAILAREN 20AN EGIN ZEN

# Ibilaldi arrakastatsua egin zen Ondarearen aldeko egunean

120 bat pertsonak parte hartu zuten

## Iñigo IMAZ

SOS Alkerdi Plataformak Ondarearen Aldeko II. Ibilaldia antolatzen irailaren 20an. Ibilaldian 120 pertsonak parte hartu zuten. Herriarrek batera, Zugarramurdi eta Baztandik ere hurbildu ziren hainbat pertsona. Plazatik atera eta lezeetarantz abiatu ziren. Harrobian Francisco Perez *Cisquik*, lezeei buruzko azalpenak eman zituen, Zelaie-tako lezeetan izandako triskantzak eta bertzelakoak aipatuz. Segidan, mila urteko zuhaitza bisitatu zuten. Malen Vilches ingeniari agronomoa den herriarrek ingurugiroari buruzko hitzaldia eman zuen. Axularren jaiotetxean Marie Denise Mackert ainhoarraren azalpenak entzun ahal izan zituzten. Axular idazle ospetsuari buruz mintzatu zen. Ibilbidea Plataformaren kolore morearekin markatu zuten antolatzaileek. Axularretik herrirako tartean, trikitilariak giroa alaitu zuten. Kultur Etxean Ignacio Barandiaran arkeologoak



ARGAZKIA: IÑIGO IMAZ

Malen Vilches ingeniaria zuhaitz milaurtedunaren aurrean azalpenak ematen.

hitza eman zuen, 80-90 hamarkadetan egindako aurkikuntzak azalduz, eta aurkitu diren grabatu berriei buruzko aipamen laburrekin. Genaro Fagoaga herritarrek egindako harrizko oroiak erakutsi zituen Barandiaranen hitzaldia.

Maxu Fagoaga ki-dearen hitzetan, SOS Alkerdi Plataformak balorazioa hagitz positiboa egin du. Herriaren inplikazioa eskertzearekin batera, hemendik aurrera gure ondarearen aldeko borrokan parte hartzea deitu zuen. Izan ere, ondare kultural eta naturalaren bizirautea ez da bermatzen ahal, ez bada harrobian ezarri nahi den ustiapen sistema berria geldia-

razten. Zentzu horrena, *Cisquik* bereziki eskertu nahi izan zuen, aurkeko belaunaldiek harrobiak egin ahal zituen

kalteak gutxitzeko egindako lana. Besteak beste, Pantxo Iribarren alkate izandakoak hartutako neurriak.



ARGAZKIA: I. IMAZ

## Sutea Armuako etxe batean

Armuako Silvi eta Aitorren etxean sutea izan zen irailaren 13an. Sutea garajearen hasi zen, izotzgailluaren motorrak eztanda egin zuelako. Zorionez, etxeak ez zeuden garajearen, eta kotxeak ere kanpoan zeudenez, kalteak gutxitu ahal izan ziren. Etxea garbitzen nahikoa lan dute orain.

## EMAKUME ELKARTEA

Abian dira Ugaranaren ikasturte berriko berriko ekimenak

## I. IMAZ

Ugarana elkarteak ikasturte berria iragarri du ohar baten bidez. Stretching Global Aktiboan bigarren urtez parte hartu nahi duenak izena eman dezake oraino, nahiz eta irailaren 28an hasiko diren eskolak. Klaseak asteartero arratsaldeko 7etatik 8etara bitartean izanen dira. Lehen urtez hasi nahi dutenek, lehenik prestakuntza kurtsoa egin beharko dute hiru hilabetez, astelehenean, arratsaldeko 6etatik 7ak bitartean. Ikastaro honi urriaren 12an emanen zaio hasiera, urtarrilaren 25a bitartean. Akitzeko Pilates eta Zunba ikastaroak iragarri dira. Pilates, urriaren 6an hasiko da, asteartetan izanen da 18:30etik 20:00 bitartean, eta 20:30etik 21:30 arte. Zunba berriz, asteazkenetan, urriaren 7tik aurrera, 19:30etik 20:30era.

Izena ematea Anastasirenean egin beharko da, 15 euro ordainduz inskripzioarekin. Bertan, ikastaro bakoitzaren salneurriak kontsultatu ahal izango dira.





# ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → IRAILAREN 20AN

## Zugarramurdi, Urdazubi eta Berako xaharrak egunpasan bildu dira

Elkarrekin berendatu eta kantaldia aditu zuten museoko auditorioan

### Margari eta Koro

Har-eman elkarteak antolaturik, irailaren 20ean Zugarramurdi, Urdazubi eta Berako xaharren topaketa bat egin zen.

Aitzakia, Berako San Jose zahar etxetik hainbat lagun etorriko zirela izan zen. Hauek, lehenbiziko lezea bisitatu zuten, eta gero Zugarramurdi eta Urdazubikoekin batera berendatu zuten elkarrekin. Ondotik, museoko auditorioan kantaldi bat aditzeko aukera izan zuten. Berako Zahar Etxekoak aski kontent gel-

ditu ziren: «Gure lehenbiziko topaketa izan zen Zugarramurdiko jubiletakako taldearekin eta betidanik ezagutuko bagina bezalako sentzazioa izan genuen», diote TTIPI-TTAPAra bidalitako ohar batean.

### Ikastaroak

Aintzineko Ttipi-ttapan euskarako ikastaro baten berri ematen genuen, eta oraingo hontan bertze bi hauek aurkezten ditugu:

- Pintura ikastaroa, Camino Eseverrik emanen duena, apezaren etxean.

- Frantseseko ikastaroa, Marie Denise Market-ek emanen duena. Ortziraletan hizkuntza eskolako azterketarako prestatzeko, eta larunbatetan oinarrizko mailan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Zugarramurdi, Urdazubi eta Berako xaharrek elkarrekin xarmanki eman zuten eguna.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Los Duendes taldearen lehen kontzertua herrian

Pil-pilean dugu musika eta kantarien afera herrian. Duela hilabete batzuk, "Toomatxa" taldearen berri ematen genuen, eta oraingo hontan, musika-bikote bat dugu aipagai, Los Duendes. Ione Zozia eta Agus Garmendiak osatzen dute Los Duendes, eta rumba estiloa lantzen dute. Beren lehenbiziko kontzertua herrian eman zuten irailaren 20an, eta hiruetan hogeita bat lagun pasa agertu ziren entzuteran. Hurrengoa Bartzelonan emanen dute, azaroaren 7an, ONG batendako diru-bilketa baterako.

**JATETXEA-ERRETEGIA**  
**MONTXO**  
**OSTATUA-TABAKO-DENDA**

Egunero irekia  
09:00etatik  
02:30era

Dantxarineatik  
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK  
 MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK  
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039  
 montxoblanco@gmail.com

**CARLOS GARAICOETXEA ETXENIKE**  
**abokatua**

Santiago, 59 2C · ELIZONDO  
 T. 948 581 468 M. 630 354 818

**ARMUA JATETXEA**

T. 948 599 131  
 Zugarramurdiko errep. 3.km  
 URDAZUBI



GERTAERAK → ABUZTUKO EZBEHARRA

# Ernest eta Jeanne Etcheverry senar-emazteak hil dira auto istripuan

84 eta 81 urte zituzten Nahika etxeko jabeek

**Franck DOLOSOR**

Usaiaz kanpoko gertakari bortitzak samin handia sortu du Senperen joan den udan izan zen auto istripuaren ondotik bi herritar ezagun zendu direlako. Akerretako errotako Luisa ahizpa eta koinatari bisita egin eta Kanbon, Ernest eta Jeanne Etcheverry jaun andereek istripu bortitza pairatu zuten abuztuan etxerat itzultzen zirelarik. Kamioi batek parean jo zituen Nahika etxe-

ko jabeak. Jeanne kolpean hil zen 81 urtetan, eta Ernest biziki larriki kolpaturik helikopteroz eraman zuten Baionako ospitalerat.

Jeannen ehorzketan Senpere eta Zuraideko koralak elgarrekin aritu ziren kantuz eta penan gelditu diren seme-alabattikiek xedeak irakurri zituzten amatxi zenaren ibilbidea gogoratzeke.

Bitartean Baionako ospitalean egoera latzan egon da Ernest zombait astez azken hartsa eman arte 84 urtetan. Sortzez Donibane Lohizundarra, berriki arte maiz aipatzen zuten ongi oroitzen zela ale-

manen okupazioajasan zuela Munduko Bigarren Gerla denboran haurra zelarik. Biziki atxikia zen euskarari. Jakes anaia zena euskal irratilari ezaguna izan zen denbora batez kronika laburrak euskaraz aire-ratzen baizituen Iparraldeko irratia arras eraldunean. Ernest zena senpertia zen erotik eta herriko bozetan hautagai izan zen zenbait aldiz, Germain Ezponda auzapez ohiarekin eta baita ere geroago abertzaleen zerrendan. Gaurko egunean ere herriko harat hunatak aski hurbiletik segitzen zituen. Fede handiko gizonak gutitan huts egi-

ten zuen meza eta kantuz ematen zizkion eskerrak Jainkoari, bere boz bereziarekin. Bankuko langilea izaki 1971an ez zuen batere dudarik izan Senperen sortu zen ikastola berriaren diruzain kargua hartzeko. Henri Duhau, orduko idazkariak, go-goan du oraino Ernest zena eta biak anaiek bezala zirela. Duhauk dio ikastola sortzean maila handiko bi lagun arraro izan zituztela: Delphine Dunat andereño heletarra eta Ernest Etcheverry bera. 7 hurrekin ireki zen Zaldubi ikastola, hauen artean Henri eta Ernesten seme-alabak. Ernest maiz ibil-

itzen zen eskean ikastolaren alde Senperen gertatzen diren auto ilarrak baliatuz eta etxez etxe ibiliz. Gisa hortan, auto finantzaketa erdietsi zuen lehen ikastola izan omen zen Senpereko eta 1974an Iparraldeko lehen prefabrikatua erosi ahal izan zuten. Duhau oroitzen da ere Ernesten koinata zena aintz lagundu zituela bere orgak prestatuz ihauterietan edo ikasgeletako materiala garraiatuz. Urrats guzi horietan urteetan beti elgarrekin ibili dira orain kolpe zendu diren Jeanne eta Ernest, Senperen huts handia uzten duten euskaltzaleak.

KULTURA → 'HERRIKOA' ETA 'ZELDA' IKUSGARRIAK

## Zarena Zarelako konpainiak herriz herri dantzan segitzen du

Urriaren 4an Larreko gelan izanen da

**F. DOLOSOR**

Zarena Zarelako Paskal Lascanok zuzentzen duen dantza konpainia eskuin eta

ezker ibiltzen ari da gelditu gabe azken bi ikusgarriak aurkezteko gisan. Urriaren 4ean, igandean 17:30ean *Zelda* presondegiari buruzko ikuskizun hunkigarria taularatuko dute Senpereko Larreko gelan. Ikusgarri hortan Hiru Soinu musika taldea ere



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Hiru soinu musika taldea ere ariko da igandean Larreko gelako ikusgarrian.

ariko da, *Libre Izan* bere bigarren lana aurkezteko eta zenbait zati elgarrekin eskaini dituzte gainerat musikari eta dantzariak. Ondoko hitz ordua urriaren 16an Hendaiaiko Beltzenia pilotalekuan, 21:00etan izanen da. Gaualdi horren lehen

partean Hendaiaiko Ake-larre taldeak *Gurea* ikusgarria erakutsiko du.

Bertzalde, euskal fandangoak, Asturias eta Galizako doinuak eta urratsak nahasten dituen *Herrikoa* ikusgarria apailatu du ere konpainia berak. Urriaren 11an Arrangoitzen ospatuko

den Mutxikoen Egunean eta azaroaren 7an Miarritzen egingen den Lurruma azokan agertuko dute 1950eko giroa gogoratzen duen dantza ikusgarria.

Ametsik ez dute falta taldean eta horien artean Hego Euskal Herrian dantzatzea...



# SARA

OSPAKIZUNAK → BURUILAREN 12TIK 16RA

## Herriak eta gazteek besta politak antolatu dituzte

Fernando Etxegaraik irabazi zuen Sara Korrika

**Joana GERENDIAIN**

Aurten ere Sarako herriak eta gazteek besta politak antolatu dituzte. Nahiz eta meteoak kaxkarra izan egunero jende frango hurbildu da plazara karro, ahate joko, pilota partida, dantzak ikustera eta kontzertu eta kantaldiak entzuterako. Larunbatean Sara Korrikak antolatutako lasterketa egin zen, 136 korrikala-

rik parte hartu zuten 10 km-ko lasterkaldi horretan. Fernando Etxegaraik beratarak irabazi zuen itzulia 42'48 minutuz eginez, bigarren Joseba Larralde 43'18; hirugarren Philippe Bordenave 45'16 eta laugarren David Nesprias 46'09. Emazteetan Manon Dejan ailegatu zen lehena 54'22 minututan, bigarrena Gwenaëlle Bidondo 56'34 eta hirugarrena Marie Noelle Laugier 59'23.

### Mendi ibilaldia

Minbiziaren kontrako borroka sustengatzeko «Octobre rose»



UTZITAKO ARGAZKIA

Sara Korrika lasterketako gizonen eta emakumezkoen podiuma.

dela eta urriaren 18an mendi ibilaldi bat antolatu da Saran. Bi ibilaldi proposatu dira: bat 9 kilometrokoa (3 ordu) eta bestea 7 kilometrokoa (2 ordu). Bi ibilaldiak 09:30ean abiatuko dira plazatik, izen emaitzak egun berean egingen dira 08:30etik goiti. 10 euroko parte hartzea galdegina da (ura, lepoko eta zinta hornitua).

### Usoaren besta

Urriaren 18tik urriaren

25era usoaren astea iraganen da Saran, horren kariatara ekitaldi frango antolatuko dira herrian. Urriaren 19an, Larrunen usoaren kofradiaren desfilea egingen da. Astelehenean, 20ean, arratsaldeko 4etan Joko Garbi partida eta 5etan esku huska partida bat jokatuko dira frontoietan. Asteartean, 21ean, arratsaldeko 6etan Zazpiak Bat dantza taldeak ikusgarri bat emanen du plazan. Asteazkenean, 21ean, goi-

zako 11etan usotegien bisita. Ostegunean, Santa Katalinako kaperan arratseko 8:30ean Erlauntza abesbatzako kantaldi bat emanen du. Ostiralean, goizean herriaren bisita eta arratsaldean elizarena antolatuak dira. Aste horretan zehar, «Usoaren ihizia sarean» erakusketa ikusten ahalko da turismo bulegoan. Urriaren 15etik goiti herriko jatetxeek beraien menuetan usoa proposatuko dute.



GRUPO TANATORIO TALDEA  
**IRACHE**  
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA  
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA) | DONEZTEBE (SAN PEDRO)  
ELIZONDO (BAZTANDARRA) | ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -  
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -





**Martzutzak**  
**ZURE OSPAKIZUNETARAKO BEHAR DUZUN GUZTIA**  
 ♥ Soinekoak  
 ♥ Ilerako apaingarriak  
 ♥ Poltsak  
 ♥ Bisuteria  
 ...  
 Bidasoa, 12 • BERA  
 948 631 425

## EZKONTZAK

**Josu Taberna Telletxea** eta **Nerea Mindegia Eleta**, Igantzi eta Doneztebekoa, abuztuaren 29an.

**Joseba Urrotz Telletxea** eta **Marimar Torres De Esteban**, Urroz eta Berbinzanakoa, abuztuaren 29an Galarko Espartzan.

**Joseba Babaze Zabaleta** eta **Izarne Zabaleta Caballero**, Urroz eta Leitzakoa, abuztuaren 8an Leitzan.

**Saioa Taberna Etxeberria** eta **Aitor Ibarra Murelaga**, Goizueta eta Lekeitiokoa, irailaren 11n.

**Jean Claude Moll** eta **Maria Encarnacion Gutierrez Castro**, Algeria eta Irungoa, Etxalarren irailaren 19an.

**Mikel Arsuaga Alda** eta **Ainhoa Altzugarai Almandoz**, Ibarra eta Lesakakoa, abuztuaren 29an.

**Ignacio Urbiria Fernandez** eta **Marta Ollokiegi Aristegi**, Donostiakoak, irailaren 11n.

## SORTZEAK

**Enara Aranberri Apezetxea**, Goizuetakoa, irailaren 15ean.

**Ainara Hita Aranguren**, Igantzikoa, abuztuaren 23an.


**Luma Brochard**, Sarakoa, irailaren 9an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua



Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

## HERIOTZAK

**Evangelina Lopez Zubieta**, Berakoa, irailaren 10ean, 81 urte.

**Antonio Alkaraz Goienetxea**, Leitzakoa, irailaren 13an, 79 urte.

**Sagrario Biguria Iribarren**, Elizondokoa, irailaren 13an, 98 urte.

**Martin Garde Saharrea**, Gartzaingoa, irailaren 14an, 69 urte.

**Miguel Gamio Etxenike**, Anizkoa, irailaren 15ean, 94 urte.

**Isidro Zabaleta Zabaleta Txato**, Leitzakoa, irailaren 19an, 70 urte.

**Justo Iñarrea Argain**, Almandozkoa, irailaren 24an, 77 urte.



*Oroigarriak egiten ditugu*

ttipi-ttapa Koskontako bidea, 07-1. | 31770 LESAKA | 948635458



### Beñat ETCHART VERDU

Urdazubin, 2011ko urriaren 6an  
IV. URTEURRENA

*Zeinen erraza den zutaz oroitzea eta zeinen zaila, berriz, zu gabe bizitzea ez dugu pentsatzen zutaz ahaztea, baina bai, ordea, egunero zu maitatzea. Beñat, espero dugu zauden lekuan guretzako leku bat gordetzea.*

*Maite zaitugu.*

**AITA, AMA, JOKIN ETA FAMILIA GUZTIA**



HERRI KIROLA → IRAILAREN 19AN ELIZONDON

# Nafarroa garaile herrialdeen arteko lehian

Hamar probetatik bortz irabazi zituen

TTIPI-TTAPA | ELIZONDO

Nafarroa Garaiak irabazi zuen irailaren 19an Elizondoko laxoa plazan jokaturako Herrialdeen arteko herri kirol txapelketa. Normalean zazpi herrialde izan behar lukete, baina Behenafarroak eta Zuberoak ez zuten talderik aurkeztu. Txapelketa hasi baino lehen, minutuko isilunea gorde zen, hainbat urtez zinegotzi

eta Nafarroako Herri Kirol Federazioko laguntzaile izan zen Martin Garderen omenez.

Nafarrek hamar kirolletatik bortzetan irabazi zuten. Honela, koxkor biltzen, Berriozarko Eder Goldarazena izan zen bizkorrena; txingekin Mielanjel Sukuntza leitzarrak ere 5 puntuak lortu zituen; zaku lasterketan ere Berriozarko Oier Aizkorbe, Oskar Aguas eta Carlos Santamariak lortu zuten irabaztea; sokatiran, Lesakako Beti Gaztek ezustea eman eta Abadiño fabritoari nagusitu zitzaion eta arpanan,



ARGAZKIAK: XAGU-LESAKA

Nafarroako ordezkariak kontent, bortz urte beranduago txapela berreskuratuta.

Kañamares III.ak eta Eugi ultzamarrek eman zioten bosgarren garaipena Nafarroari. Ingude altxatzen bigarren izan zen Josetxo Urrutia leitzarra, aizkoran Donato Larretxea bezalaxe. Orga jokoan hirugarren izan zen Iruñeko Albaro Zugarrondo eta lasto altxatzen eta harrija-sotzen laugarren izan ziren Amaiurko Iñigo Goienetxe eta Etxalarako Xabier Ariztegi. Denera, 40 puntu lortu zi-

tuen Nafarroak eta gisa honetara, bederatzigarren aldiz lortu du txapela. Hain zuzen, 2002an lortu zuen lehen aldiz txapela janztea Beran eta 2004tik 2010era segidan irabazi zituen hurrengo zazpiak, tartean 2009an Donezteben. Geroztik, ez zuen garaipenik lortu azken lau urteetan, baina Elizondon berriz jaun eta jabe izan zen.

Gipuzkoa bigarren izan zen, bi proba ira-

bazita, lasto altxatzen eta harri jasotzen, 32 puntu denera. Bizkaiak ere bi garaipen lortu zituen, aizkoran eta orga jokoan eta 31 puntu lortu zituen. Arabak garaipen bakarra lortu zuen, ingude altxatzen Jon Lapazaranek lortu zuena. Halere, sailkapen orokorrean, garaipenik lortu ez zuen Lapurdiren gibelatik gelditu zen. Lapurtarrek 22 puntu eskuratu zituzten eta arabarrek 21.

AIZKORA → URRIAREN 4AN ETXARRI-ARANATZEN

# Donato Larretxea ez da Nafarroako finalean izanen

Oihan Larretxeak maila galdu du

TTIPI-TTAPA |

Nafarroako lehen mailako aizkora txapelketaren kanporaketa jokatu zuten irailaren 20an Uharten. Bederatzi aizkolarari aritu ziren lehian, Ander Erasun aurtiztarrrak ezin izan baitzuen parte hartu. Bortz lehenbizikoek urriaren 4an

Etxarri Aranatzen jokatuko den finalerako txartela lortu dute: Floren Nazabalek (14:33), Iker Vicente (15:27), Juan Jose Lopezek (15:41) eta Jon Rekondo (16:03) eta Ruben Saralegi (16:26) leitzarrek lortu dute txartela.

Ezusterik handiena, beharbada, Donato Larretxea finalerako kanporatzea izan da, seigarren izan baitzen; Julen Kañamares zazpi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Nazabal, Vicente, Lopez, Jon Rekondo eta Ruben Saralegi, igandeko finalerako boskotea.

garren izan zen, Mieltxo Mindegia zubiatarra zortzigarren eta Oihan Larretxea beratarra bederatzigarren. Beraz, Mindegia eta Larretxea gazteak maila galduko dute. Dena den, Mindegia Erasunen aurkako jautsiera kanporaketa eskatzeko aukera du.

## BIGARREN MAILAKO ARPANA TXAPELKETA

Nafarroako bigarren mailako arpana txapelketa ere jokatu zen egun berean Uharten. Andoni Irigoien (Aniz) eta Guillermo Etxenike (Irurita) suertatu ziren txapelkun eta mailaz igoko dira. 7minutu eta 25 segun-

do behar izan zituzten 14 korte egiteko (horietatik 4 zutik). Bigarren Berriozarko Raul Maiza eta Jose Luis Cano izan ziren; hirugarren Ekaitz Maritorea (Berroeta) eta Eneko Irigoien (Aniz) eta laugarren Lander Landiribar (Amaiur) eta Josu Zuñiga (Txantrea).



LAXOA → GAZTETXO ETA GAZTEEN TXAPELKETAK

# Doneztebe eta Oiz nagusitu dira finaletan

Euriarengatik egun bat gibeleratu behar izan zituzten partidak Iruritan

## TTIPI-TTAPA

Irailaren 12an, larunbatarekin, jokatzekoak ziren gaztetxo eta gazte mailako laxoa txapelketen finalak Iruritan. Azke-

nean, euriarengatik igande arratsaldean jokatu behar izan zituzten. Haur mailan, Doneztebek 9-6 irabazi zion Oizko taldeari eta gazte mailan, Oizek 9-2 irabazi zion Iruritari.

Ttikienak hasi ziren larunbatean jokatzeko, baina Doneztebe Ak Oiz-i 3-1 irabazten ari zela, iganderako utzi behar izan zuten. Eraitza horrekin hasi eta Doneztebek segitu zuen bere nagusitasunarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gazte eta gaztetxo mailako finalistak, sari banaketaren ondotik.

Azkenean 9-6 irabazi zion Oizko laukoteari. Doneztebeko taldean Unai San Miguel, Markel Jabalera, Aimar Sarraatea eta Joseba Bengoetxea aritu ziren eta Oizkoan, Xuban Ilarregi, Mikel Mikelarena, Oscar Ilarregi eta Aimar Ariztegi.

Gazte mailan, errazago nagusitu zen Oizko taldea, 9-2 irabazi baitzion Iruritari. Iaz bezala, Oizko Ioritz Zelaia eta Aimar Saldias, Zorion Zelaia eta Jon Oizartzabal izan ziren txapelak eta Iruritarrekin, Pablo Dorregarai, Iker Aleman, Asier Ma-

riezcurrera eta Unai Aleman aritu ziren.

Txapelak eta sariak banatzen Jon Oyarzun, Nafarroako Pilota Federazioko gerentea eta Iruritarrekin Losu Prim aritu ziren. Iruritarrekin plazan bertan Laxoa Elkarteak merendu-afari bat antolatu zuen.

ERREMONTA → BURUZ BURUKO TXAPELKETA

# Urrizak hirugarrena lortu du Uterga menperatuta

30-20 nagusitu zen Iruñekoa irailaren 12ko finalean

## TTIPI-TTAPA

Urrizak buruz buruko hirugarren txapela jantzi du erremontean eta Ezkurra eta Matxin II.aren ondotik, gehien lortu duena da. Irailaren 12an Galarretan Xanti Uterga doneztebarraren kontra jokatu zuen finala. Hasieran, 14-12kora arte berdindua joan zen, baina azkenean 30-20 nagusitu zen Iruñekoa.

Sakean ez zuten ez batek ez bertzeak min

handiegirik egin, baina Urriza nagusi izan zen pilotean, 20 tanto egin baitzituen eta 15 Utergak. Sakearekin 4 tanto egin zituen Urrizak eta 2 Utergak.

Finalaren ondotik, pozez gainezka ageritzen Urriza, «finala markagailuak erakusten duena baino gogorra goa izan baita. Une txarrak pasatu ditut, duela hilabete batzuk ez nekien txapelketa jokatu ote nuen ere eta orain, aurreko txapelak baino gozoagoa da hau».

Xanti Utergak, berriz, Urriza txapeldun handi bat dela onartu zuen. «Azkeneko lau finalak

jokatu ditu eta horietatik hiru irabazi, hori ez da kasualitatea», zioen. Halere, berak jokaturako partidarekin ere kontent gelditu zuen: «Ligaxkan bere kontra eman nuen irudia hobetu nahi nuen eta lortu dut. Hobe jokatu dut eta 14-12ra arte partidaren egon naiz. Gero, segurtasuna eman dion alde lortu du Urrizak eta nik arriskatu behar izan dut eta ez zait ongi ateratu».

## EZKURRA ETA GRAVNIKO TXAPELDUN GAZTEEI OMENALDIA

Doneztebeko besta ttikien baitan, Koteto Ezkurrari omenaldia es-



UTZITAKO ARGAZKIA

Uterga azpitxapelduna eta Urriza txapelduna, sariekin.

kaini diote, erremontean eman dituen 25 urteak eskertzeko eta bere izena eman diote frontoiari. Gainera, berriki ju-


benil mailako GRAVNI txapelketa irabazi duten Eloi Garcia eta Julen Larretxea ere omendu zituzten.



## urriak 1 - urriak 15

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.eu](mailto:info@ttipi.eu) edo 948 63 54 58

## Lehiaketak



LESAKA | 2015.10.31

**Beti Gazte Elkartearen argazki lehiaketa**

75. urteurreneko ekitaldien baitan antolatu du Lesakako elkarteak argazki lehiaketa. Afizionatuek aurkez ditzake lanak, urriaren 31ra arte.

## Ospakizunak



ELGORRIAGA | 2015.10.04

**Nafarroako XXII. Onddo eta Zizen egun handia**

Kofrade berrien izendapena, artisau produktuen dastaketa, kaxuela lehiaketa, joaldunen bisita, zozketak... egitarau oparoa dute prest Elgorriagan.

## Ikuskizunak



SENPERE | 2015.10.04

**Dantza eta musika uztartuko dituen saioa Larreko gelan**

Zarena Zarelako dantza konpainiaren *Zelda* ikuskizunaz eta Hiru Soinu musika taldearen azken lanaz gozatzeko aukera izanen da 17:30etik aitzinera.

Zarelako dantza konpainiak eta Hiru Soinu Musika taldeak taularatuko dute ikuskizuna 17:30ean Larreko gelan.

**Zinea**

LEITZA

**'El Congreso'**

Urriaren 2an, eta 4an Ari Folmanen filma ikusgai.

**'The grandmaster'**

Urriaren 9an eta 11n Wong Kar Wairen filma ikusgai. Ostiraletako saioak 22:30ean eta igandetakok 19:30ean.

ARANTZA

**'Denok akuriak'**

Urriaren 25ean, dokumentala Baskulan 17:00etan.

**Herrigintza eskola**

ARANO

**Izarrei begira'**

Urriaren 3an, Aranzadiko astronomia sailekoen eskutik.

**Ospakizunak**

BERA

**Artzain Amerikanoen besta**

Urriaren 3an. Beran ospatuko dute aurten urteroko bilkura. Xehetasunak 16. orrian.

ZUBIETA

**Malerreka kantuz**

Urriaren 3an. 12:00etan Zubietako plazatik abiatuta.

LEITZA

**Aurrera Eguna**

Urriaren 3an. Xehetasunak 34. orrian.

**Erakusketak**

BERTIZ

**'Nire basorako bozetoak'**

Urriaren 1etik azaroaren 2ra arte. Diana Iniestaren erakusketa ikusgai, Bertizko parke naturalean. (Egune-ro irekita: 10:30-13:30 eta 16:00-17:00etara).

BERA

**'Atzo, gaur eta beti'**

Urriaren 2tik 4ra eta 9tik 11ra. Euskal Artzainak Ameriketara Elkarteak antolatuta, Beralandetan. (Ortziraletan 17:00-19:00 eta larunbat eta igandean 11:00-13:00 eta 17:00-19:00.

**Solasaldiak**

BERA

**Euskara Batzordearen hausnarketa saioa'**

Urriaren 3an. Beralandetan, 16:00etatik 18:30era. Xehetasunak 19. orrialdean.

ELIZONDO

**'Egur zertifikatua: gure basoen etorkizunari begira'**

Urriaren 2an. Gonzalo Anguitak hitzaldia eskainiko du, 20:00etatik aurrera, gazteleraz. Arizkunenean.

IRURITA

**'Aldaketa klimatikoa txorien begietatik'**

Urriaren 3an. 18:30ean hitzaldia Jose Miguel Viñasen eskutik Jauregian, (gazteleraz).

IRURITA

**'Hegaztiakiko maitasuna'**

Urriaren 3an. Jose Luis

Gallegoren eskutik, 20:00etan gazteleraz, Jauregian.

LEITZA

**'Hazien garrantzia elikadura burujabetzan'**

Urriaren 15ean. Hitzaldia, bideo emanaldia eta tertulia. 19:00etatik aurrera, Atekabeltzen.

**Lehiaketak**

LESAKA

**Beti Gazteren argazki lehiaketa'**

Urriaren 31ra arte aur-

keztu litezke lanak. Oinarriak 20. orrialdean.

**Ate-irekiak**

BERA

**Bidaziren Alkaia gako egoitzan**

Urriaren 2an Proiektua ezagutzarazteko azoka berezia. (18:00etan gazteleraz, 19:00etan euskaraz).

**Ikuskizunak**

SENPERE

**'Zelda' eta 'Libre izan'**

Urriaren 4an. Zarena

## PROPOSAMENA

ANIZ-GARTZAIN

**Udazkenean ere besta!**

Urriaren 3tik 5era ospatuko dituzte Anizko Arrosarioko Amabirjinarren bestak. Aurten gainera, bitxikeri modura, ohiko mus txapelketari buelta eman eta hiru hiruren kontrako musa jokatuko dute, zortzi erregetara. Gartzainen berriz, Pilarrikak urriaren 9tik 12ra ospatuko dituzte. Egun handia astelehenarekin suertatzen denez, lau eguneko asteburu luzea izanen dute.





ELGORRIAGA

**Onddo eta Zizen Eguna**

**Urriaren 4an.** Xehetasunak 28. orrialdean.

SARA

**Kantarien eguna**

**Urriaren 4an.** Sarako kantariak elkarteak antolatua. Xehetasunak 38. orrialdean.

ZUBIETA

**Euskararen Eguna**

**Urriaren 10ean.**

Xehetasunak 28. orrialdean.

ETXALAR

**Usategietako igandea**

**Urriaren 11n.** Xehetasunak 21. orrialdean.

BERA

**Euskara Mankomunitateak 25. urte**

**Urriaren 12tik 16ra.** Hainbat ekintza antolatu dituzte Berako Kultur Etxean. Xehetasunak 24. orrialdean.

BAZTAN

**Nafarroa Oinez**

**Urriaren 18an.**

Nafarroako Ikastolen aldeko besta Baztan Ikastolak antolatuko du. Xehetasunak 4. orrialdean.

SARA

**Usoaren besta**

**Urriaren 18tik 25era.**

Aste betez, ekitaldi aunitz dituzte prest. Xehetasunak 42. orrialdean.

**Bestak**

ANIZ

**Arrosarioko amabirjinak**

**Urriaren 3tik 5era.**

Egitaraua 35. orrialdean.


**ENTRETENIMENDURAKO GAIAK**

**Liburua**



**J**on Bilbaoren zortzi ipuin hauek maisutasunez idatzita daude; esaldi eta paragrafoak tentsioak eta intentsitateak ohartzeko gora egin dezan hurrenkeran jarrita daude. Hala, bada, Biblia irakurtzen duten auzokideak zelatzen dituen bikotea, itsasertzean baratutako balea, hildako amari bisita egiteko bidaia edota landako erretiroan ezagututako azeria gure bizialdiak inguratzen dituen normaltasun auraren hauskortasunaren ispilu dira. Bizitzan bezala, pertsonaiek, ezustean, aurrera jotzeko haien baitan dagoenarekin topo egin behar dute eta, era batera edo bestera, kateatuta gelditzen dira haien egunerokotasuna orpotik ateratzera etorri den gertakizunari. Irakurlea ere, narrazioek bere baitan sortuko dituzten oihartzunei kateatuta geldituko da.

**Musika**



**N**eguko lehen elurteetan lez, egun eguzkitsuetan noizbehinka erortzen diren malutak lez, eroriko dira hemendik aurrera Sirokaren kantu berriak. Baina ez dira edonola eroriko. Single bakoitza bideo klip berri batetaz jantzita etorriko da, bideosortzaile anitzen ikuspuntua eta estiloa isladatuz eta era horretan maluta bakoitzari izaera berezi eta aberasgarria emanez.

**Internet**



**A**rantzako udalak web gunea estreinatu du. Herriari buruzko informazio orokorra, zerbitzuak, agendako hitzorduak, azken berriak, bisitariendako datu interesgarriak... jarri dituzte eskuragarri modu argi eta erabilerrazean. Argazki eta bideo galeria ere baditu eta bertan topatuko dituzue bertzeak bertze, herrian izaten diren ospakizunen irudiak. Bulego birtuala ere martxan jarri dute eta horren bidez, katastro eta errolda eta katastro ziurtagiriak online eskatzeko aukera ematen dute.

GARZAIN

**Sanmigelak**

**Urriaren 9tik 12ra.**

Egitaraua 37. orrialdean.

**Ibilaldiak**

BAZTAN

**Belateko itzulia**

**Urriaren 3an.** Benta

Erreatik abiatuta 10:30ean. (euskaraz)

BERTIZ

**Bertizko Jaurerria Parke Naturala**

**Urriaren 4an.** Jose

Luis Gallego eta Juan Goñiren eskutik, 10:30ean hasita.

**Kirola**

ETXARRI-ARANATZ

**Nafarroako lehen mailako aizkora txapelketa**

**Urriaren 4an.** Etxarri

Aranazen jokatu den final handian eskualdeko aizkolariak lehiatuko dira txapelaren bila. Xehetasunak 44. orrialdean.

BAZTAN

**Nafarroa Oinez Erronka**

**Urriaren 18an.**

Nafarroa Oinez bestaren baitan. Informazioa 38. orrialdean.

SARA

**Urri arrosaren baitan mendi ibilaldia**

**Urriaren 18an.**

Minbiziaren kontrako borroka sustengatzeko helburua du. 9:30ean abiatuko dira eta izen ematea egun berean egin behar da 08:30etik aitzinera. (10 euro ordaindu behar dira).



**ETXEBIZITZAK**

salgai

**ORONAZ-MUGAIRI.** Pisua salgai, 90 m<sup>2</sup>ko azalerakoa. Etxe mogleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m<sup>2</sup>ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. ☎948 585036.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**  
- Eskaintzagarriak baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

**URDAZUBI**  
- Etxe berri bat salgai, mogleztatua. 2000 m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**  
- **Aukera:** 102 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukaldia mogleztatua eta 17 m<sup>2</sup>ko trastelekua.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

**BERA.** Kantton Berri karrikan 77 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 2 logela, bainugela 1, egongela eta sukaldia despentsarekin. Igogailua eta buelta osoan 55.92 m<sup>2</sup>ko terraza-rekin. Berritu beharra. ☎948 637359.



**ELIZONDO.** Akulegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezio oso ekonomikoa. ☎646 774117.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA  
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**  
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta  
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz  
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

**ETXALAR.** Larrapil Sarriku karrikan etxea errentan emateko. Herriko bista zoragarriak dituen toki paregabea. 3 logela, 2 bainugela, sukaldia, 2 egongela, despentsa eta trasteleku handia. Oso eguzkitsua. ☎687766971/☎672153196.



**ERATSUN.** 2 borda salgai, bere lurrekin. Goizez deitu. ☎620 676886.

**LESAKA.** 98 m<sup>2</sup>ko pisua salgai, 3 logela, bainugela, egongela, su bajuarekin. Sukaldia despentsarekin eta mogleztatua. Igogailua eta buelta osoan balkoi ederra. Bizitzera sartzeko prest. ☎609 445769.

ko prest. ☎609 445769.

**LESAKA.** Pisua salgai, herri erdian, eguzkitsua eta oso ondo kokatua. Hall, sukaldia, arropa zintzilikatze tokia, 2 logela, egongela handia, komuna eta trastelekua. Aukeran garaje plaza, beste trasteleku batekin. Igogailua garajeraino. Sarbideetan oztoporik gabe. 186.000 eurotan. ☎657 708866.

**ETXEBIZITZAK**  
erosi

**ZONALDEAN.** Etxea, baserria edo borda erosiko nuke. Ez du inportazion egoeratan dagoen. ☎626 226774.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan emateko

**IRUÑEA.** Pisua errentan eman nahi da, Paulino Caballero kalean. 3 logela ditu eta mogleztatua dago. Oso argitsua. Unibertsitatetik 5 minutura. ☎647 992350.

**ELIZONDO.** Pisua errentan eman nahi da. ☎639 419955.

**ORONAZ-MUGAIRI.** Pisua errentan eman nahi da. Logela bat, jangela-egongela, sukaldia eta bainugelarekin. Urbanizazioan tenis pista eta igerilekua ere badaude. ☎647 237186.

**LESAKA.** Ote karrikan pisua errentan emateko. Sukalde elektrikoa eta beheko sua, ganbarra, balkoia eta bajera-rekin. ☎943 633430.

**BURLATA.** Herri erdigunean, kale nagusian

egin berri den parkearen ondoan, 68m<sup>2</sup>ko pisua errentan eman nahi da. Iruñera doan Villavesaren geltokitik minutu batera. Oso argitsua, leiho guztiek kanpokaldera ematen dute. 2 logela, sukaldia, egongela, komuna eta trastelekua ditu. 430€/hila-betean. ☎680 129453.



**BERA.** Logelak eta apartamentua errentan emateko. ☎654 385363.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan hartzeko

**Elizondon** lanean ari den neska bat naiz eta logela/pisua bilatzen dut errentan hartzeko hila-bete batzuetarako. ☎618 207297.

**GARAJEAK/LOKALA**  
errentan emateko

**LESAKA.** Lur azpiko bi garajea errentan eman nahi dira, Albistur karrikan bat eta Bittiria karrikan bestea. ☎618 962937.

**BERA.** Julio Caro Beroja karrikan 10.ean, bajera haundia errentan eman nahi da. Hagitz argitsua. Ura, argindarra eta komun tiki bat dauzka. Prezio negoziagarria. ☎948 630257.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**  
(irailaren 11tik 18ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 26 €

**Zerri gizena**  
1,205 € kiloak.

**Zerramak:**  
0,410 € Kg/bizirik.

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 3,92  
**1.koa** 3,69

**2.koa** 3,53

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,20

**1.koa** 3,94

**2.koa** 3,77

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**

urruxak 150,00

idixkoak 228,00

**Aretze nabarrak:**

urruxak 140,00

idixkoak 180,00

**Zaldikoak:** €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

**Bildotsak:** €/k

6-8 kilokoak: 7,20/8,50

8-10 kilokoak: 7,20/7,40



**LURRAK/ORUBEAK**  
salgai

**LESKA.** Zanzonbaita baserriko 5.000 arboleko saila errentan eman nahi da aprobetxamendurako. Haritza, akazia eta pinua. Arbolez gain lurra landu nahi duenarentzat ere, baratza bezala, aproposa. ☎943 632864.

**LURRAK/ORUBEAK**  
errentan hartzeko

**SARA.** Errentan hartzen dira 45 antxu. Urri hondarretik maiatzaren lehena arte. ☎(0033) 652733188.

**LANA**  
eskariak

**LESKA.** Emakume euskaldunak haurrak zaintzen edo etxeko lanak egiten lan egin nahi luke. ☎948 627534/☎679 578120.

**ELIZONDO eta INGU-  
RUAN.** 42 urteko emakumea eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko orduka edo interna bezala. ☎644 879012.

Esperientziadun neska eskaintzen da **haurrak zaindu, adinekoak zaindu edota etxeko lanak egiteko.** Intersatuak deitu ☎672 568522.

**LANA**  
eskaintzak

**URDAZUBI.** Montxo ostatu-jatetxean zerbitzaria behar da. Frantses pixka bat jakitea beharrezkoa da. ☎948 599039.

**URDAZUBI.** Montxo ostatu-jatetxean sukaldaria behar da. Esperientziarekin. ☎948 599039.

**Elektromekaniko bat** behar da Baztan-Bidasoko auto tailer batean. Esperientziaduna. ☎699 454627.

Malerreka edo Bortzietan, eskualdeko pertsona bat behar da **fruta-denda** batean lan

egiteko. Bidali curriculumak [kifrut@gmail.com](mailto:kifrut@gmail.com) helbidera.

**LESKA.** Zerbitzari lanean aritzeko lagun euskaldun bat behar dugu, Atxaspi Ostatuan. ☎948 637536.

**BERA.** Ibardingo Beola etxean zerbitzaria eta dendan lanean aritzeko jendea behar da asteburuetan. Bidali Curriculum-ak [beolaetxea@gmail.com](mailto:beolaetxea@gmail.com) e-Postara.

**IGANTZI.** Irrisarri Land komunikazioan aritzeko pertsona baten bila dabil. Hizkuntzak eta komunikazio arloan esperientzia izatea kontuan hartuko dira. Interesatu dutenek: [administracion@irisarriland.es](mailto:administracion@irisarriland.es) helbidera bidali behar du curriculumak.

**LESKA.** Atxaspi hotolean garbitzailea behar dugu. Interesatu dutenek idatzi deitu ☎948 637536/☎647 456611 edo idatzi hotela [@atxaspi.com](mailto:@atxaspi.com).

**MOTORRAK**  
salgai

**Automóviles IMOBA**  
Okasioko ibilgailuen salerosketa

VW GOLF TOI  
5 ATEKOA - TXURIA - 2012 URTEKOA  
13.500€

RENAULT ESPACE 25 ANIVERSARIO  
XENON - DVD - GPS - 2010 URTEKOA  
13.990€

MERCEDES VITO 109 DCI  
LANEKOA - ATZEAN PURTIDIA - 2010 URTEKOA  
11.500€

RENAULT CLIO 1.5 DCI  
TXURIA - 5 ATEKOA - 2011 URTEKOA  
6.990€

Irun-Iruña errepidea  
N-121-A 63.km **BERA**  
948 630 750 | 648 231 361  
[www.automovilesimoba.com](http://www.automovilesimoba.com)

**Ibiza FR 1.8 Turbo** kotoxea salgai. 150 zaldikoa eta 2.004 urtekoa. Egoera onean. ☎699 434008



**Yamaha JOGR** salgai oso egoera onean. 6.300 kilometro ditu. ☎630 676740



**ANIMALIAK**  
salgai

Leitzan hiru ahari salgai. ☎626 660675.

**ANIMALIAK**  
oparitzeko

Txakur bat oparitzen dut. **Labrador arrazakoa.** 5 urtekoa. ☎609 892282.

**ZERBITZUAK**  
klase partikularrak

Diana Iniestarekin ikastaroak: **Artea ingelesez** 6-9 urte arteko haurrentzat, Erratzun eta **Oleo pintura helduentzat**, Erratzu eta Dunezteben 16 urtetik aurrera. Izen ematea urriaren 15era arte. Informazio gehiago, [www.dianainiesta-benedicto.com/oferta-formativa](http://www.dianainiesta-benedicto.com/oferta-formativa), ☎659 948926 edo [dianainiesta@hotmail.com](mailto:dianainiesta@hotmail.com).

Ingurumen Zientzietan Lizentziatua naiz eta Bigarren Hezkuntzan Irakasle izateko Masterra dut. **Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoan, Matematika, Natur zientziak, Kimika, eta Fisika** eskola partikularrak ematen ditut. Interesik baduzu, deitu inolako konpromisorik gabe ☎637 992570.

**DENETARIK**  
salerosketak

**Saxofoi bat** erosiko nuke, haurrak ikasteko erabili dezan. Ahal bada Yamaha yas modelo. ☎639 869312/☎948 610504

**ERATSUN.** Lurreko sua salgai bere kristalerarekin. 150 euro. ☎948 615014/☎618 328079.

**ORONAZ.** Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramannen da. ☎676 242520.



**Bizikleta eliptikoa** salgai, VE710 markakoa. Hagitz egoera onean. Aldizkako edota erabilerak trinkorako balio duena. ☎637466118



**SUNBILLA.** Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua. ☎659 867287/ 699 461394.

Sei **altzairuzko fregadera** salgai, haundiak, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.



**DENETARIK**  
galdu/aurkituak

**Belarriko aparatua edo audifonoa** galdu dut Beran. Norbaitek aurkitzen badu, dei dezala mesedez ☎948 630765..

**BERA.** Toki Ona institutuko aparkalekuan giltza pare hau aurkitu da. Jabeak institutuko sarrreran galdetu dezake.



**BERAKOUDALA**

**TOKIKO GOBERNU BATZORDEAREN AKORDIOA -HIRIGINTZA-**

Akats Zuzenketa

Irailaren 17ko egunkarrietan argitaratu zen 7. Sekto-reko UEFan Borondatezko Birzatiaketaren behin betiko likidazioa hasiera batez onesteari buruzko akordioaren iragarkia.

Honetan, akats batengatik, ondokoa ez zen jarri: Jendaurreko informazioaldian agiriaren aurkako alegaziorik ez aurkeztuz gero, onespren hau behin betikotzat joko da.

Espedientea jendaurrean izanen da hoge egunez, dagokion iragarkia -akats zuzenketa- NA-On argitara ematen direnetik.

Bera, 2015.09.22

ALKATEA,  
Josu Iratzoki Agirre

**IRA-GAR-KIA**

aldizkarian  
+  
interneten

**8**

**EURO**

**ttipi-ttapa**

Tel. 948 635 458  
[erran.eus](http://erran.eus)



# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€ Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,42€ko 10 edo 20 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekea; 4) erran.eus bitartez



Aunitz urtez **Uso!** 30en muga pasata, bazoaz ttririki ttrarak! Ongi ongi pasa eguna eta muxu haundi bat lankideen partez!



Narbarteko **MARTINTXO, UGAITZ** eta **OIERREK**, irailaren 22, 25 eta 26an urteak bete dituzte. Zorionak etxe-koen partez, bereziki Arene, Intza eta Mikelen partez. Muxu eta besarkada bana! Merendola goxoa prestatu!



**JULEN ZELAIETAK** urriaren 8an urteak beteko ditu. Aunitz urtez Sunbillako familiaren eta bereziki guraso eta arrebaren partetik. Ongi pasa.



**JARE MAIA AROTZENA** lesakarrak 4 urte beteko ditu urriaren 5ean. Aunitz urtez eta muxu haundi bat familia osoaren partetik.



Lesakako **JARE MAIA AROTZENAK** 4 urte beteko ditu urriaren 5ean. Zorionak eta 4 muxu haundi denen partetik eta bereziki Orti, Lexuri, Elorri eta Aiert lehengusu-lehengusinen partetik.



Oronoko **JOEL GARAIKOETZEAK** 9 urte bete ditu irailaren 17an, zorionaaakkk zure familia guztiaren partetik, besarkada haundi, haundi bat. Ongi pasa zure eguna.



Aresoko **ENARA BARANDARAIN MITXAUSEK** urtea beteko du urriaren 3an! Zorionak eta muxu haundi bat preioxia! Segi orain bezain bihurri...



Urdazubiko **EKHI JAURENA EIZAGIRREK** urriaren 1ean urtea beteko du. Zorionak eta muxu haundi bat attatto eta amattoren partetik.



Aizoain bizi den **JANIRE REMIREZ PERURENAK** irailaren 29an 11 urte bete ditu. Zorionak eta egun eder bat pasa Iturengo amatxi, osabazibea eta lengusuen partetik baita ere aita-ama eta ahizpa Iraiaren partetik. Besarkada haundi haundi bat etxeko printzesari.



Zorionak aitaxo! Elizondoko **MATTINEK** urteak bete ditu irailaren 23an. Ongi pastu egune ta muxu haundi bet Eider ta Leiren partetik.



Erdi Baztandarra izan arren, Tuteran bizi den mutil koxkorrari muxu haundiak familia guztiaren eta, bereziki aitaxo eta amattoren partetik.

↑ hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa [erran.eus](http://erran.eus) en

argazki soila 4 EURO aldizkarian interneten 8 EURO argazki bikoitza

# EGUTEGI PERTSONALIZATUAK

**SAKELEKO EGUTEGIAK**  
**MAHAI GAINEKO EGUTEGIAK**  
**PARETAKO EGUTEGIAK**  
**POSTER EGUTEGIAK**

Hoskontako bidea, 7 LESAKA  
ttipi-ttapa T. 948 635 458 [kulturkari@ttipi.eus](mailto:kulturkari@ttipi.eus)



# ttipi txartelarekin beti irabazten da!



Miren IPARRAGIRRE HUALDE  
72673111-B  
epemuga 04/2016  
Zk. 123456



DESKONTUAK, ZOZKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSUTRUK  
-%80eko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN  
**Eskatu zurea: 948 63 54 58**

Informazio gehiago:

**TTIPI-TTAPA**

koskontako bidea 7 LESAKA  
T 948 635 458 | F. 948 635 457  
info@ttipi.eus  
erran.eus

## ZOZKETAK

646. ALEKO  
IRABAZLEAK:

- Kamiseta bat | BUATXABAL**  
Sebastian Belarra | ERATSUN
- 2 produktu sorta | LANKU**  
Jose Miguel Betelu | IRUÑA  
Gurutze Maritorea | ARRAIOZ
- 2 sarrera | LESAKAKO UDAL IGERILEKUA**  
Koro Elizondo | SUNBILLA
- 2 sarrera | IRRISARRI LAND**  
Jose Manuel Olazabal | ARESO
- 3 liburu | ELKAR Argitaletxea**  
"Tira, Kamila, espabila!" | Begoña Larralde | LEGASA  
"Elefante bat hegan" | Santiago Migeltorea | ELGORRIAGA  
"Zure denboraren truke" | Dominika Arburua | AZPILKUETA
- 2 sarrera | DONOSTIAKO AQUARIUMA**  
Eulalia Arriada | ELIZONDO

## DESKONTUAK



**FISIOETXEA**  
Ane Egizabal Llata  
Fisioterapeuta

LEITZA | %10, 10 saioko bonoan



DONEZTEBE | %10, 30€tik gora



DONEZTEBE | %10, 12€tik gora




DONEZTEBE | %5, kosmetikan  
eta haur eramailetan



LEITZA | %10, oparitzeko artikuluetan



DONEZTEBE/ELIZONDO  
%10, 30€tik gora



BERA | %5, produktu guztietan

### KAMISETA BAT Onddo ta punto

[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



**KARTA JOLASA**  
Pirritx, Porrotx eta Marimotots  
[www.katxiporreata.com](http://www.katxiporreata.com)



**LOTEA  
Martiko**  
[www.martiko.com](http://www.martiko.com)

### 2 SARRERA Sorginen Lezeak

[www.turismozugarramurdi.com](http://www.turismozugarramurdi.com)



### 2 SARRERA Donostiako Aquariuma

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)



**ibaizabal**

**3 LIBURU** | Ibaizabal argitaletxea  
"Zonbi parkean harapatuta" | "Maddalenen usaina" | "Parkerat"  
[www.ibaizabal.com](http://www.ibaizabal.com)



# HIPERSiMPLY

NAFAR MENDI MERKATALGUNEA  
BAZTAN - BIDASOA

OINEZ

HAMABORTZ, AMA BAT

NAFARROA OIN 2015 BAZTAN

Urtan  
Zure  
Zatarna

Arraioz, Baztan | T: 948.452.656  
Astelehenetik larunbatera : 09.00 - 21.00